



## Nik lan eta hik jai


Askok atseden hartzeko eta turismo apur bat egiteko aprobetxatzen dute uda sasoa. Beste asko, oster, uztailean eta abuztuan lanez lepo egoten dira. Aitziber Agirre, Mikel Sanchez, Igor Iglesias eta Aitziber Izquierdo beharginen kasua da bigarren hori. • 2-3

## "Eibar klubetik joatea nire etxetik joatearen modukoa da"

**Kirola** • Olatz Areitio durangarrak 11 denboraldi egin ditu Eibar futbol klubean, euretariko asko lehenengo taldean. Baina aurrera begira ez dela klubeko planean sartzen jakinarazi diote eta beste bide bat hartu behar izan du. Nazional B Mailan dabilen Oiartzun taldeak egin dion eskaintza iruditu zaio aproposena mahai gainean izan dituenen artean, eta Gipuzkoako taldean jokatu du datorren denboraldian. Erronka berriari aurre egiteko "motibatuta" dagoela adierazi du. Abuztuaren 2an hasiko du denboraldi-aurrea klub berriagaz. • 26



## Martxan da ANBOTOren argazki lehiaketa



ANE BERNAS

**Argazki lehiaketa** • Zazpigarren urtez martxan da ANBOTOk antolatzen duen udako argazki lehiaketa. Aurten ere, arlo bitan aurkeztu ahal izango dira argazkiak. Parte hartu gura dutenek irailaren 19a baino lehenago ipini beharko dituzte argazkiak [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean. • 12

## Mallabia eta Mañaria 2021



**DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA**  
**CEPA DURANGO HHI**  
**Doako irakaskuntza ofiziala**

Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253  
[www.epadurango.hezkuntza.net](http://www.epadurango.hezkuntza.net)



- Atzeritarrentzako gaztelania ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak
- Informatika eta ingeles ikastaroak.
- ERDI MAILAKO zikloetarako sarbide probak

**BERRIA!**



**MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253**  
[www.epadurango.hezkuntza.net](http://www.epadurango.hezkuntza.net)

**MATRIKULA-EPEA:**

**Irailaren 1etik 17ra arte**

**Matrikula egiteko ordutegia:** Asteleheneretik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00  
Ostiraletan: 09:00-13:00



## “Konfinatuta egon den jendearen txakurak zaintzeko aukera bat izan gara”

Aitziber Agirre Abaitua (Berriz, 1977) albaitariak Neberondo txakurren egoitza dauka Larrinagatxun. Lanez lepo dabil egunotan. Inoiz baino "mugimendu" handiagoa dagoela dio

**DURANGO • JONE GUENETXEA**

**Zelan dator uda txakurak zaintzeko duzuen espazioan?**

Topera dator. Aurten jendeak opor beharrezana dauka eta ematen du ahal duten guztiak kanpora joango direla.

**Aurten lan gehiago duzue?**

Durangaldean abuztuan beti izaten dugu lan asko. Automozioiko enpresa asko dago eta abuztuan zarratu egiten dutenez, jende asko joan egiten da. Baina, aurten, mugikortasun mugak kendu dituztenetik, asteburuetan jendearen joan-etorria asko hazi dela igarri dugu. Bestalde, jende asko aurreratu egin ditu oporrak, badaezpada. Etorri daitekeenaren beldurrez-edo, beste urte batzuetan baino askoz ere lehenago hasi dira mugitzen. Ekainean bertan jende asko kanpora joan da.

**Zein zerbitzu eskaintzen duzue?**

Albaitaria naiz, eta, beraz, albaitaritza zerbitzua eskaintzen dut. Horrez gainera, txakurren egoitza daukagu. Egunetarako zein

asteetarako ekartzen dituzte txakurak. Bakoitzak behar duenaren arabera moldatzen gara.

**Hotel bat izateaz gainera, txakurak egunpasa ere joaten dira.**

Jendea etxetik lanean ibili denean, bezeroen pentsakera eta beharrezan aldatu egin dira. Txakurra egunean zehar etxean atenditu ezin dutenek eguna pasatzera ekartzen dute, eguneko zentro bat izango balitz legez. Han solte ibiltzen dira eta mendira eramaten ditugu paseoan.

**Zenbat urte daramatzazue? Zerbitzuak zein bilakaera izan du?**

Zerbitzua antzera eman dugu. Jendearen beharrezanetara moldatzen gara. Baina gauza batzuk aldatu egin dira. Lehen, arrazoiren bategatik txakurra etxean eduki ezin zuenak ekartzen zuen. Txakur horiek gure egoitzan bizi dira. Eta jabeak txakurra bisitatzeratortzen dira. Bestalde, etxean obra handi bat egiten dabilzanen kasua dago esaterako, edo familiarian gaixotasun baten eraginez

txakurra zaindu ezin dutenak. Urte hauetan Durangaldean txakur kopurua esponentzialki handitu egin dela igarri dugu. Egunduzko aukera planteatu ere ez genuen egiten lehen, baina, orain, beharrezan hori duten bezeroak ditugu.

**Zelan lan egin duzue pandemian?**

Konfinatuta egon den jendearen txakurak zaintzeko aukera bat izan gara. Eurek ezin zuten txakurra kanpora atera. Beraz, etxeetara joan izan gara txakurak jasotzera. Konfinamendu saso hori txakurrek gugaz pasatu dute. Bestalde, erizainen txakurak ere izan ditugu. Hainbeste egunean topera ibili dira lanean, eta hain nekatuta amaitu dutenez, euren txakurak ere izan ditugu gure zaintzapean.

**Eta zure oporrak, noizko?**

Ekainean joaten naiz, umeeke oporrak hartzen dituztenean.

**Uda sasoia txakurak gehien abandonatzen dituzten sasoia da.**

Konfinamendu sasoian jende

askok txakurra hartu du etxean. Baina kontuan izan behar da oporretan eta eguraldi txarragaz txakurrek hor jarraitzen dutela. Ez da kapritxo bat. Txakur bat zure bizitzan sartu aurretik, on-

do pentsatu behar da. Pentsatu behar dute zenbat denbora duten txakurragaz egoteko, eta baita ere txakur horrek dituen beharrezanak zeintzuk diren. Ardura bat da.



Aitziber Agirre Neberondo egoitzan.

## “Kanpotik datozenak harrirituta geratzen dira hemen dugun aniztasun natural eta kulturalagaz”

Udan dena ez da hondartza. Mendi ingurua eta barrualdeko herriak ezagutu gura dituztenak geroago eta gehiago dira. Turista horientzat informazio puntua dago Otxandion

**OTXANDIO • J.G.**

**Mikel Sanchez Bengoak (Otxandio, 1994) Otxandioko informazio puntuan lan egingo du uda honetan. Iaz ere bertan aritu zen. Eguaztenetik domekara zabaltzen dute bulegoa.**

**Noiz ipini duzue martxan informazio puntua?**

Uztailean ipini genuen martxan.

**Zelan doa?**

Iaz, turista euskaldun asko izan genituen, gertukoak. Aurten, estatutik edo Europatik datozen turistak lehenago etortzen hasi dira.

**Zein zerbitzu eskaintzen duzue?**

Informazio puntu bat daukagu. Turistei informazioa eskaintzen diegu, herriko historia edo herriak ezagutzeko. Mendi bueltaren bat edo ibilbideren bat ere egin gura izaten dute. Gainera, Urkiolako eta Gorbeiko parke naturalak gertu ditugu. Beraz, inguru honetan plan asko egin daiteke.

**Beraz, udan dena ez da hondartza.**

Kanpotik datozenak harrirituta

geratzen dira hemen dugun aniztasun natural eta kulturalagaz. Hala ere, turista batzuk bi edo hiru egunean egoten dira hemen, eta gero kostaldera joaten dira. Beraientzat garrantzitsua da gertutasuna. Hemen egon zaitezke eta 40-50 minutura kostaldea daukazu.

**Otxandiora datozenek mendi ibilbideak ezagutu gura izaten dituzte**

MIKEL SANCHEZ

**Zer da jendeari gehien interesatzen zaiona?**

Otxandiora datozenek mendi ibilbideak ezagutu gura izaten dituzte. Bestalde, Otxandiok historia handia du gerra zibilaren inguruan. Orain urte batzuk, udalak *Gerra Zibileko lorratzak* ibil-

bidea egin zuen. Panelak daude ibilbidean zehar, eta gerra zibila Otxandion zelakoa izan zen kontatzen da bertan.

**Jendearen oporrak lana dira zuretzat. Zelan daramazu hori?**


Astelehen eta martitzenetan bulegoa itxita egoten denez, atsedean hartzeko aprobetxatzen dut. Gustura nabil lanean. Ondo sentitzen naiz informazio puntuan jendeari laguntzen.

**Aldea dago iaztik aurtengo urtera?**

Oraindik goiz da hori jakiteko. Gure informazio puntua txikia da eta iaz, kasu batzuetan, neuk irteten nuen informazioa ematera. Oraingoan, ematen du jendea lasaiago sartzen dela.

**Irakaslea zara. Zelan uztartzen dituzu lan biak?**

Irakaskuntzan lanean hasi naiz. Uda partean lanik egiten ez dudanez, tartetxo hau hartzen dut. Ea irailean irakaskuntzan ordezkapenen bat edo beste aukeraren bat irteten zaidan.



Mikel Sanchez Otxandioko informazio puntuan.



## “Gauzak aldatzen dabiltzala dirudi. Apurka-apurka jaialdiak eta horrelakoak antolatzen hasi dira”

Kultur arloan geroago eta mugimendu handiagoa igartzen da. Igor Iglesias Moreno (Durango, 1989) soinu teknikariak hainbat proiektutan lanean pasatuko du uda osoa



Igor Iglesias kontzertu bat prestatzen.

**DURANGO • J.G.**

**Igor Iglesias soinu teknikaria da. Sektoreak momentu gatxa pasatuen arren, kultur programazioak apurka-apurka martxan ipintzen ari direla dio durangarrak. Iglesias lanean dabil iazko abendutik.**

**Zelan dator uda?**

Geratu barik nabil lanean, kontzertuetan zein antzerkian. Baina, egia esan, jende asko lanik barik egon da sektore honetan. Orain badator lana, jaialdiak eta kontzertuak batez ere. Gauzak apur bat aldatzen dabiltza.

**Zertan arituko zara lanean?**

Durango Udalaren kultur programazioan arituko naiz, muntaietan laguntzen eta baita produkzioan ere. Nogen taldeagaz, Bulegogaz eta Olatz Salvadorregaz ere arituko naiz. Antzerkian, proiektu berri bat sortzen ari gara eta

## Nik lan eta hik jai

Hainbat negozioren goi-denboraldia udan izaten da

**DURANGALDEA •**

Abestiak dioen legez, uda saioan batzuek lan egin behar izaten dute beste batzuek oporrez gozatu dezaten. *Hik lan eta hik jai* abestia makina bat bider abestu du Luhartz taldeak inguruko erromerietan. Eta abesti hori hainbat herritarren errealitatearen isla da. ANBOTOk Durangaldean lanean geratuko diren lau pertsonaren testigantzak jaso ditu. Gremio eta sektore ezberdinetakoak diren arren, uda goi-denboraldia izaten da denentzat. Aitziber Agirre be-

rriztarrak txakurren egoitza dauka eta lanez lepo dabil. Eskerrak ekainean oporretan joateko tartetxoa hartu zuela. Igor Iglesias soinu teknikaria da. Titiriteroak legez, kontzertu batetik bestera dabil. Furgonetan sartu eta makina bat kilometro egingo du uda honetan. Mikel Sanchez Otxandioko turismo bulegoko informazio puntuan arituko da lanean, bigarren urtez. Aitziber Izquierdo aktore elorriarrak Durangoko Tabirako igerilekuetako taberna hartu du.

Portugalen ibili gara prestatzen. Egitasmo hori azaroan aurkeztuko dugu.

**Kultur arloan, zelako ikasturtea izan duzue?**

Iazko neguan, Nogen taldeagaz hasi nintzen. Abendutik martxora bitartean 30 kontzertu egin genituen. Beraz, alde horretatik nahiko ondo hasi nuen urtea.

Gauzak aldatzen dabiltzala dirudi. Apurka-apurka jaialdiak eta horrelakoak antolatzen hasi dira.

**Oporrak noizko?**

Oporrak irailean hartuko ditut, aste horretan ez dagoelako ekitaldirik. Astebete inguru izango da. Baina uda lan egiteko aprobeztatuko dut.

## “Pandemiaren eraginez jendea gutxiago kontsumitzen dabil”

Kanpoko igerilekuetako tabernan eguraldiari begira egoten dira egunero. Aitziber Izquierdo aktore elorriarrak dioenez, uda euritsu hasi den arren gogotsu dabil lanean

**DURANGO • J.G.**

**Aitziber Izquierdo Garaizabal elorriarrak Durangoko Tabirako igerilekuetako taberna hartu du. Uda lanean pasatuko du, beraz.**

**Zelan doa uda hasiera Durangoko igerilekuetan?**

Eguraldi txarragaz hasi da uda. Denerik egoten da. Ekainean euria izan dugu. Orain hobetzen dabil. Bestalde, ikusten nabilena da pandemiaren eraginez jendeak gutxiago kontsumitzen duela. Jendeak etxetik ekartzen ditu gauzak. Gainera, 15:00etan itxi egiten dute igerilekua, goizeko txandakoak irten daitezten. Horrek eragina du bazkarietan. Ostalaritzarako ez da urte ona.

**Baduzue eskaintza berezirik?**

Urtebetetzeak egiten ditugu. Gainera, jendea 21:00ak arte geratu daitekeenez, pizzak ere eskainiko ditugu.

**Zelan sortu zaizu taberna hau kudeatzeko aukera?**

Ni aktorea naiz. Urte gogorra

izan da artista guztiontzat. Irailetik aurrera espektakulu berri bat egin gura dut. Aktore denok ostalaritzan ibilitakoak gara inoiz. Banuen esperientzia Elorrioko igerilekuetan, eta baita Durangokoetan ere taberna kudeatzen, eta neure burua aurkeztu nuen. Udan lan egitea da nire asmoa, eta irailetik aurrera nire kultur jardunera bueltatzea.

**Udan lan egitea da nire asmoa, eta irailetik aurrera nire kultur jardunera bueltatzea**

AITZIBER IZQUIERDO

**Zure oporrak, noizko?**

Irailearen amaierarako, baina hori ez da arazo niretzat. Jendea abuztuan joaten da, eta horixe da hilerik txarrera edonora joateko. Irailetik aurrera nire espektakulugaz jarraitu gura nuke.

**Pandemiak zein eragin izan du zure aktore lanean?**

Nik formatu txikiko ikuskizun bat daukat. *Eskupido amor* izena dauka. Gatxa izan da. Aretoen aforoa mugatua izan da, gauza asko ez dira antolatu, eta programatzaileek ere ziurgabetasun

handia izan dute. Urte arraroa izan da. Nik gurago nuen lan egin diru laguntzak eskatu baino. Gero esango dute artistak ez garela langileak! Bizimodu eta ordutegi desberdinak ditugunez, jendeak ez du gure lana baloratzen.



Aitziber Izquierdo Durangoko igerilekuetan.



# Durangoko zergek, tasek eta prezio publikoek gaur egungo kopuruetan jarraituko dute 2022an zehar

Durangoko udalbatzak 2022ko ordenantza fiskalak onartu ditu. Gobernu taldeak dio "errealitatera doitutako" ordenantza dela. Oposizioko alderdiak abstenitu egin dira, euren esanetan iaz egindako igoerak "berretsita" geratu direlako

## DURANGO • EKAITZ HERRERA

"Errealitatera doitutako ordenantza fiskalak". Iker Urkiza EH Bilduko zinegotziak berba horietekin deskribatu ditu 2022. urteari begirako ordenantza fiskalak. Labur esanda, honakoa nabarmendu daiteke: Durangoko zergek, tasek eta prezio publikoek dauden moduan jarraituko dute 2022an zehar. Hau da, Ondasun Higiezinaren gaineko zergak, Hondakinenak, Ibilgailuenak zein TAO zerbitzuak bere horretan geratuko dira. Oposizioko alderdiek 19 emendakin aurkeztu dituzte. 11 aurkeztu ditu PSE-EEK, eta 8 EAJk. Euretarioko batzuk tesuan jasota geratu dira.

EAJk abstentziora jo du. Euren emendakin batzuk onartu egin direnez, ordenantzan "hobekuntza txikiren bat" lortu duela adierazi dute. Baina hutsuneak ere ikusi dituzte. EAJk dio aukera bat galdu dela iaz eginiko zerga igoeran atzera-buelta bat emateko, eta, horren-

bestez, iazko igoera "sendotuta" geratu dela. Josune Escotak gogora ekarri du iaz higiezinaren gaineko zergak %14 egin zuela gora eta %15 hazi zela komertzioena. Alderdi sozialistak antzerako jarrera hartu

du. Herriaren Eskubidea taldeko Jorge Varela esanetan, ostera, iaz egindako igoerari eskerrak udalak tarte gehiago izan du bere finantzaketa propioa "autogestio-natzeko" eta herritarren beharri-

zarak bermatzeko, "Udalkutxatik etorriko denaren menpe egon barik". Varela gogoratu du, iaz, aurreikusitakoa baino 3 milioi euro gutxiago heldu zirela Bizkaiko Foru Aldunditik Udalera.



Eguazten arratsaldean onartu zituzten 2022ko ordenantza fiskalak.



## Patxi L. Lakunzak hartu du Mikel Uriguenaren lekua

### DURANGO • EKAITZ HERRERA

Zinegotzi berri bat batu da Durangoko udalbatzara. Joan zen hileko osoko bilkuran, Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemos- Independentek taldeko Mikel Uriguenak kargua utzi zuen, bederatzi hilabetean ordezkari lanetan egon eta gero. Aurrerantzean, Patxi L. Lakunzak beteko du haren lekua. Lakunzarentzat ez da kargu berria. Aurreko legegintzaldian ere zinegotzi lanetan aritu zen talde morearen barruan.

## 'Gastrobonuak' kaleratuko dituzte, Durangoko ostalariei bultzada emateko

### DURANGO • EKAITZ HERRERA

Ostalaritzaren sektoreari beste bultzada bat eman guran, Durangoko Udalak 'gastrobonuak' kaleratzeko erabakia hartu du. Bonuak urriaren bueltan ipiniko dituzte erabilgarri, eta komertzioetako bonuekin erabilitako mekanika beragaz baliatu ahal dira. Neskutz Rodríguez Herriaren Eskubidea taldeko zinegotziak aurreratu duenez, herritarrek 10 euroan eskuratu ahalko dituzte bonuak, gero 20 euroko kontsumoa egin ahal izateko. Hori bai, Rodríguez azpimarratu duenez, bonua tabernaren batean kontsumitzeari ekiten dionak taberna horretan agortu beharko ditu 20 euroak. Udalak 35.000 euro ipiniko ditu egitasmorako.

# Sinadura bilketa hasi dute astronomia zerbitzua berreskuratu dadin eskatzeko

Durangoko Izarra elkarteak astronomia gaiak dibulgatuko dituen hezitzaile baten beharrezana azpimarratu du. Lan horretarako plaza publiko bat sortzea eskatuko dio Hezkuntza Sailari

## DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Izarra astronomia elkarteak sinadura bilketa bat hasi du garai bateko astronomia zerbitzua berreskuratu dadin eskatzeko. *Peticiones.net* atarian ekin dio sinadurak batzeari. Honako hau da, zehatz esanda, elkartearen eskaria: "Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskatzen diogu deialdia egin dezala, berriro Durangoko Astronomia Gelarako Astronomiako laguntzaile plaza ateratzeko; hez-



Esteban Esteban Astronomia zerbitzuko dibulgatzailea izan da, 2019ra arte.

kuntza komunitateak jarrai dezan izaten, gure ustez, hezkuntza-baliabide garrantzitsu eta baliotsua".

Kontua ulertzeko, urte bi egin behar da atzera. 2019ra arte, Durangoko Intxaurrondo ikastetxeko kupulan astronomia gaiak dibulgatzen ziren. Euskal Autonomia Erkidego ikasle ugari bertaraten zen, Erkidego osoan astronomia gaiak lantzen zituen gela bakarra zen eta. Gertatzen dena da bertan irakasle lanetan ibilitako Esteban Estebanek erretiroa hartu zuela, eta ordutik hona hutsik dagoela zerbitzua. Durangoko Udalak Hezkuntza Sailari egotzi dio zerbitzuari jarraipenik ez ematea. Hainbat bider eskatu dio zerbitzua berreskuratzeko. Oraingo honetan, Izarra elkarteak egin du eskaria.

**anboto**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2021eko uztailaren 23a  
19. urtea - 859. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



# Epai batek arrazoia eman dio langabeziagaitiko prestazioa ukatu dioten behargin iurretari bati

Langileak auzibideak hasi zituen LAB sindikatuaren bitartez. Orain, epai batek arrazoia eman dio, prestazioa hartzeko eskubidea zuen, ERTE egoera behartuan zegoelako



Irantzu Izagirre behargin eta Garazi Mendoza LABeko abokatuak.

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Irantzu Izagirre Bravo iurretarrak ezin zuen sinistu gertatzen ari zitzaiena. Iazko azaroan lanik barik geratu zen eta halakoetan egin ohi den moduan, langabeziagaitiko ordainsaria eskatzera joan zen Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikora, SEPE delakora. Baina han, ustekabea, ukatu egin zioten eskaria. "ERTEan egon nintzen zera, ez nuela behar beste kotizatu esan zidaten, eta ez nuela langabe-

ziagaitiko ordainsaria eskuratzeko aukerarik", dio Izagirrek. Beharginak, orduan, auzibideak hasi zituen LAB sindikatuagaz elkarlanean. Auzia Bilboko auzitegietara eraman zuten, eta orain egun gutxi kaleratu da epaia. Emaiza, honako hau da: epaileak arrazoia eman dio beharginari. Hau da, Izagirrek berari zegokion langabeziagaitiko ordainsaria eskuratzeko eskubidea du, bere orduko ERTE egoera derri- gorra zelako.

Auziaren muina ulertzeko, 2020ra egin behar da atzera, koronabirusak gogor kolpatu zuen garaira. Izagirre, momentu hartan, Durangoko taberna batean zebilen zerbitzari, Goienkalean. Baina itxialdiak eta ostalaritzako ordu murrizketak hasi zirenean, tabernako martxa korapilatu egin zen. Langileak ERTEan sartu ziren, eta egoera horretan hiru bat hilabetean egon eta gero, negozioko atea zarratu behar izan zituzten. Hor

etorri zen Izagirreren auzia. SEPEk ukatu egin zion langabeziagaitiko prestazioa, ERTEan egon zela eta nahikoa kotizatu ez zuela argudiatuta. "Baina nik urtebete eta hile batzuk egin nituen lanean. Hiru bat hilerako prestazioa eskuratzeko aukera nuen", zehaztu du langileak.

Izagirrek ez du auzibide hau bakarrik egin. Durangaldeko LAB sindikatuko Garazi Mendoza Agirre abokatuak izan du bidelagun, eta Mendozak honela azaltzen du gertaturikoa: "Koronabirusa ailegatu baino lehen ere baziren ERTEak. Baina koronabirusa ailegatuakoa, araudi berria kaleratu zen, Covid ERTE moduko bat. Hain zuzen ere, Espainiako gobernuak oinarritzako ez ziren aktibitate ekonomiko guztiak bertan behera uztea agindu zuelako. Errege dekretu hategaz, gobernuak bazuen langileak kaleratzeetatik babesteko gutxienerako asmo bat. Eta araudi horretan azpimarratzen denez, kotizazioek indarrean jarraitu behar zuten, inolako salbuespenik barik, nahiz eta ERTEan egon. Eta salbuespenik ez dagoenez, ulertzen duguna da langabeziagaitiko prestazioa hartzea zegokiola Izagirreri, nahiz eta bere lanaldi tarte horretan ERTEan egoniko hileak konputatuta dauden". Orain, Mendoza abokatuak honelakoak salatu daitezkeen bultzatu gura du, "asko izan daitezkeelako egoera berean dauden beharginak".

**Egoitz Etxeandia zornotzarrek irakasle ekintzaileenaren saria jaso du**



**ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA**

Egoitz Etxeandia Lauaxeta ikastolan dabil irakasle, eta Junior Achievement fundazioaren eskutik irakaslerik ekintzaileenaren saria jaso du, "ikasleentzat aukerak sortzeagaitik" eta irakasleak "erronka berriei aurre egitera bultzatzeagaitik". Kontua #microempresas izeneko lehiaketatik dator. Etxeandiak eta Lauaxeta ikastolako Jone Escribano, Iñigo González, Jon Ortega eta Unai Carrera irakasleek espainiar estatuan egiten den mikroenpresen lehiaketan parte hartu dute. Saria irabazi dute han, 140.000 irakaslearen artean sailkatu eta gero.

Egoitz Etxeandiak, aurrerantzean, zabalik du Junior Achievement Europek antolatzen duen jardunaldietan Europako irakasle ekintzailea izendatzeko aukera.

## Zornotzarrek kalera irten dute azken eraso matxista eta homofoboak salatzen

Erasoak joan zen astean gertatu ziren. Mutil batzuek harriak egin zitoten beste mutil bati, eta neska bat jazarri zuten



Astelehenean elkarretaraztea egin zuten Zornotzan.

**ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA**

Zornotzako Erreferendum plaza jendez bete zen astelehen arratsaldean, uztailearen 15ean herrian izandako eraso matxista eta homofoboak salatzen. Mugimendu feministak eta Akelarre plataformak argi esan dute: "Alarma gorria piztu gura dugu, Zornotzako jaiak izango ziren data hauetan zaintza eta sare feministak indartzeko, eta mutil gazteen halako jarreraren aurrean erantzuteko. Ez dezagun halakoen aurrean ezikusiarrena egin". Gertaturiko eraso bien aurrean, "pedagogia feminista" baten lan-keta aldarrikatu dute.

Mutil talde batek neska bat eta mutil bat jazarri zituen. Mutilari "maritxu zikina" eta halakoak oihukatu, eta harriak jaurti zizkion. Haren lagunak defendatzera joan ziren, baina eurak ere jazarri zituzten. Neska bati eskuagaz jotzeko keinua egin eta mehatxu egin zitoten. Protestaren deitzaileek arazo hauek inguru hurbiletik lantzen hastera eta arau zisheteropatriarkala deseraikitzen deitu dute.

## Maria Benitok irabazi du Enrike Renteria sariketa

Aurten ez da zuzeneko margoketa saiorik egon. Bai, ostera, "Zintzilik" modalitatea, 'Kolorez Bizi' lelopean

**ZORNOTZA • ARITZ MALDONADO**

Koronabirusaren eraginez, aurtengo Enrike Renteria lehiaketan ez da zuzeneko margo lehiaketarik egon. Dena dela, 'Zintzilik' modalitatea bai, egin da. Eta Maria Benitok eskuratu du lehenengo saria. Carmen Marinek eraman

du bigarrena, eta Iraia Elexpuruk hirugarrena. Bestalde, ikusleen saria Iraia Aspiazuk irabazi du. Lehiaketara aurkezturiko lanak Zornotzako Euskal Herria plazan daude ikusgai. Aurreko edizioetako 70 lan ere ipini dituzte ikusgai, Zornotza osotik.



Zornotzako kaleetan eskegitako oihaletariko batzuk.





Iguria auzoko irteera itxita.

## AHTko obrak direla-eta Iguria auzoko lehenengo irteera itxi dutela salatu dute

Elorriko Udalak ahalik eta arinen soluzio bat bilatzeko eskatu dio Bizkaiko Foru Aldundiari

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

AHTko obrak direla-eta Iguria auzo parean N-636 errepidea itxi izana salatu du Elorriko Udalak, eta puntu horretarako benetako soluzio bat eskatu dio Bizkaiko Foru Aldundiari prentsa ohar baten bitartez. Bestalde, Elorriko Udalak baztertu egin du auzoko bigarren irteera erabiltzearen alternatiba, "arriskutsua" delako.

"Nahiko gogorra da AHTaren moduko zentzubako azpiegitura baten ondorioak sufritu behar izatea, are gehiago proiektuaren guztiz aurka egonda. Orain, gai-

**Elorriko Udalak baztertu egin du Iguria auzoko bigarren irteera erabiltzearen alternatiba**

nera, Iguria auzo parean errepidea itxi dute, aldebakarrez erabakita, udala kontuan hartu barik, eta Iguriako bizilagunengan eta haien segurtasunean eragin zuzena duen bidegurutze bat berrantolatzea erabaki dute. Hori guzti hori dela-

eta, bere erabakia berriro planteatzeko eta lehenengo irteera berriro gaitzeko eskatzen diogu Bizkaiko Foru Aldundiari", adierazi du Idoia Buruaga alkateak prentsa oharrean.

**Semaforoa ipintzeko eskaria**

Bestalde, Elorriko Udalak jakinarazi du joan zen martxoan Igurian behin-behineko semaforo bat instalatzeko eskatu ziola Bizkaiko Foru Aldundiari, oinezkoen bidea amaituta egon arte eta martxan hasi arte. Baina oraindino ez dutela erantzunik jaso azaldu dute.

## Kurutziagako bidegurutzeko segurtasuna "lehenbailehen" hobetzea eskatu du EAJk

Gobernu taldea harrিতa agertu da EAJren oharragaz, eta zenbait aukera aztertzen dabiltzala azaldu du



**ELORRIO • A.M./M.Z.**

EAJren ustetan, Elorriko Udala "berandu" jokatzeko dabil eta Kurutziagako bidegurutzea "puntu beltz" bat dela azpimarratu du. "Beharrezkoa da ingurua hobetzea eta geroago eta ugariagoak diren trafiko arazoak konpontzea. Laburbilduz, azken bost urteetan hiru istripu larri gertatu dira. Horietariko batean pertsona bat hil zen eta istripu txikiak etengabeak dira", azaldu du Mikel Arruabarrena EAJko udal taldearen bozeramaileak.

EAJren ustetan, biribilgune bat eraikitzea da aukerarik egokiena inguruko arazoa konpontzeko:

"EH Bildu Kurutziagako inguruari buruzko ikerketa motel batean murgilduta dago, mahai gainean hainbat aukera dituela. Bien bitartean, istripuak gertatzen dira".

**Gobernu taldearen erantzuna**

Idoia Buruaga alkatea "harrিতa" agertu da EAJren oharragaz. "Harrিতa nago, badakite-eta dagoneko lanean gabiltzala. Gainera, orain hile batzuk publiko egin genuen zenbait aukera dugula esku artean, eta horiek aztertzen gabiltzala", azaldu du alkateak. Bidegurutzeaz gainera, gunerretan beste faktore batzuk ere aztertu behar direla jakinarazi du.

## Atxondoko Udala herritarrekin diagnostikoa egiten dabil Berdintasun Plana osatzeko

Herritarrek irailera arteko epea izango dute udalak proposatutako galdetegia betetzeko



Udalak "egungo beharrezko araberako plan bat" egin gura du.

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Atxondoko Berdintasun Plana egiteko prozesuaren barruan, udala diagnostiko bat egiten hasi da inkesta baten bitartez, herritarren iritzia ezagutu eta hauen beharrezkoak zeintzuk diren jakiteko.

"Planaren faserik garrantzitsuenetariko bat da hau. Testuinguru bat sortzeko, atxondarrek zer pentsatzen duten jakiteko eta egungo beharrezkoen araberako plan bat egiteko aukera emango digu. Horregaitik, oso garrantzitsua da parte hartzea, eta galdetegiari erantzuteko dei egiten diet herritarrei", adierazi du Maria Aranguez zinegotziak.

Irailaren 1era arte erantzun ahal izango zaio galdetegiari. Inkesta Interneten eskuratu daiteke, baita paperean ere, udaletxean.

## Berrizko Udalak 524.000 euro ipiniko ditu hilerrian lanak egiteko

Orlan Isoird alkateak azaldu duenez, hilerriak defizientzia estrukturalak ditu eta hori "arriskutsua" izan daiteke

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Eguaztenean eginiko osoko bilkuran, Berrizko Udalak gerakinetik 995.000 euro aurrekontura pasatzea erabaki zuen. Diru atal horretatik 409.000 euro hilerria berritzeko erabiliko ditu. Guztira, udalak 524.000 euro ipiniko ditu lanetarako, urte hasieran aurrekontuetan gordetako diru atalari gerakinekoa batu beharko zaio eta.

Diru atal horregaz hainbat izango dira egingo dituzten lanak. "Kanposantuan defizientzia estrukturalak daude eta horiek arriskutsuak izan daitezke. Beraz, lan horiek egin egin behar dira", adierazi zuen Orlan Isoird Berrizko alkateak osoko bilkuran.

Defizientzia estruktural horiek konpontzeaz gainera, komunak

konpondu, hilerriko langilearen eremua atondu eta gaur egun agur eremu lez erabiltzen den kapera konpondu behar dituzte, besteak beste.


Josu Albizuri EH Bilduren bozeramaileak bilkuran adierazi zuen.

**EH Bildu ez dago hilerria konpontzearen aurka, baina proiektuagaz "zalantzak" dituzte**

nez, proiektu horrek zalantzak sortzen dizkio talde subiranistari: "Ez gaude hilerria konpontzearen aurka, baina proiektuaren inguruan hainbat zalantza ditugu", esan zuen.



# Osasun gida



**Profesionalik  
onenak zure  
zerbitzura!**

 **Fisioterapia**  
PSE: 119/13

## Zainduz

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea  
behea eskuma  
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

 **Pedagogia**  
PSE: 63/63

## UGATZ

**UMEAREN  
GARAPENERAKO ZENTROA**  
Laguntza goiztiarra,  
psikomotrizitatea,  
fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea  
DURANGO  
ugatz@hotmail.es  
944 668 370 - 615 782 090

 **Fisioterapia**  
PSE: 57/16



pablo zubizarreta  
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D  
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com  
946 550 049 - 695 784 963

 **Optometria**  
PSE: 162/13

Naia  
Zabala  
Azumendi  
11587 kol. zk.



keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99  
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Podologia**  
PSE: 148/13

## PAUSOZ PAUSO

Podologia  
klinika

Goiatz Murua  
kol. zbk. 147  
Ainhoa Elorza  
kol. zbk. 238  
Nerea Rodriguez  
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio  
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefonoa: 946203630  
Monago Torre 4, behea 48200 durango

 **Odontologia**  
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika  
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenetz, betidanik izan gara  
adituak esterilizazioan.  
Orain, inoiz baino gehiago,  
den-dena prestatu  
dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -  
48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194  
454uecdental@gmail.com

 **Odontologia**  
PSE: 112/13



**J.L. URRETA ZABALO**  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
IMQ, PADI (umeen hortz programa)  
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.  
48200 DURANGO  
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**  
PSE: 16/09

 **AGIRRE KLINIKA**  
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

**Laser berria:**  
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa  
(prezio bereziak), barizeak... Adinaren  
kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

**Txatxiena, 6**  
48200 - DURANGO  
Tel.: 946 810 387

 **Psikologia**  
PSE: 62/11



**JON ARRUBARRENA**  
PSIKOLOGO KLINIKOA  
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

**Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO**  
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz  
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728



# Iazko urritik itxita egon eta gero, udalak berriro esleituko du Mañariko Errekondo jatetxearen kudeaketa

Negoioa kudeatzeko proposamen bat aurkeztu da lehiaketa publikota, eta kontratazio mahaiak bere oniritzia eman dio

**MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO**

Errekondo jatetxea itxita dago iazko urritik. Orain aste batzuk, udalak lehiaketa publikoa hasi zuen negozio horren kudeaketa emateko, eta, epealdi horren barruan, negozio hori kudeatzeko interesa duen proposamen bat jaso dute.

Udaleko kontratazio mahaia eguaztenean batu zen Errekondo jatetxeko proposamena aztertzeke. Dokumentazio guztia

arduradunek. Errekondok atea zabaltzen dituenen, Mañariak hiru taberna edo jatetxe izango ditu zabalik: Errekondo bera, Arri-Toki jatetxea eta U2 taberna. Bestalde, Herriko taberna itxita

dago, obrak egiten dabilzalako bertan. "Herrian orain dagoen tabernen eskaintzari beste bat gehitzea garrantzitsua dela uste dugu", adierazi du Ainara Otxotorena alkateak.

2018tik hona udalak hainbat saiakera egin du Errekondoren kudeaketa esleitzeko. Etapa berriak iazko urrira arte iraun zuen. Osasun krisiak utzi duen ondorioetarikoa bat izan zen.



Errekondo berriro zabaltzen dutenean, Mañariak hiru taberna edo jatetxe izango ditu zabalik.

**Errekondoko kudeatzaile berrien asmoa jatetxea irail erdi-amaiera aldera zabaltzea da**

zuzen zegoen udaleko iturrien esanetan, eta, beraz, eurei esleituko diete kudeaketa. Hurrengo pausoa kontratua sinatzea izango da. Kudeatzaile berrien asmoa jatetxea irail erdi-amaiera aldera zabaltzea dela adierazi dute udal

**Otxandion irteerak antolatu dituzte herria eta bertako pagadiak hobeto ezagutzeko**

**OTXANDIO • J.D.**

Gorbeia Euskadi erakundeak Gorbeia hainbat bisita antolatu du hemendik eta urrira bitartean parke naturala ezagutarazteko. Eurretari hiru bisita Otxandion izango dira: uztailaren 24an, abuztuaren 22an eta irailaren 4an. 12 urtetik gorakoek 3 euro ordainduko dute, eta 6tik 12 urtera artekoek 1,5.

Hiru irteerak launa kilometro pasatxo dituzte eta denetan Presazelaiako pagadia eta As-

**Lehenengo irteera zapatu honetan izango da; beste biak abuztuaren 22an eta irailaren 4an dira**

kirutzeko izoztegia bisitatuko dituzte, besteak beste. Irteera guztiak 11:00etan hasiko dira, Otxandioko plazan. Izen-ematea Gorbeia Euskadi erakunde-ko webgunearen bitartez egin daiteke.

# Etxeko animaliak batu eta zaintzearen gaineko ordenantza onartu dute Izurtzan

Aurrerantzean zainketa gastuak animalien jabeek ordaindu beharko dituztela da ondorioetarikoa bat



Azken udal batzarrean aho batez onartu zuten ordenantza.

**IZURTZA • J.D.**

Izurtzako azken udalbatzarrean aho batez onartu dute etxeko animaliak batzeko eta zaintzeko zerbitzuaren tasak arautzen dituen ordenantza. Orain, ordenantza Bizkaiko Boletin Ofizialean argitaratu dute eta alegazioak egin daitezke.

Prozesu horren ondoren onartuko dute behin betiko. Ordenantza honen ondorioetarikoa bat honako hau da: aurrerantzean, etxeko animalia bat Izurtzako lurretan aurkitu, jabea nor den jakin ez, eta zainketa gune batera eramaten denean, gune horretan sortzen

**Ordenantza Bizkaiko Boletin Ofizialean argitaratuta dago eta alegazioak egin daitezke**

diren gastuak animalien jabeek ordaindu beharko ditu. Orain arte udala egiten zen gastu horien kargu, ez zegoelako arlo horretako ordenantzarik. Beste ondorio bat honako hau da: lehen, jabeak gura zuenean jaso zezakeen bere etxeko animalia zentrotik; aurrerantzean, udaletxera joan beharko du lehenengo, zainketa lanen gastuak ordaintzera. Behin ordaindutakoan jaso ahalko du animalia.



**Ibaia bistaratuta, amaituta daude industrialdeko lanak Mallabian**

**MALLABIA • J.D.**

URA agentziak amaitu ditu Mallabiko Mallabarrena industrialdeko lanak. Industrialdearen ondo-ondotik doan erreka gainezka egiten zuenean, kalteak eragiten zituen inguruko pabilioietan. Azken urteetan behin baino gehiagotan gertatu den zerbait izan da udal ordezkarien esanetan. Arazo horiek konpontzeko, lan nagusi bi egin dituzte. Batetik, erreka apur bat desbideratu dute; bestetik, lehen estalita zihoan erreka, eta orain bistan utzi dute, estalkirik barik.



# Abadiño, Amorebieta, Berriz, Durango eta Iurretako hipermerkatu eta supermerkatu guztietan bakarrik

Bazkidea bazara

# %25 DOAN\*

zure erosketa osoan

Haragi, arrain, iberiko, olio, ardo, esne,  
detergente, pixoihal...**zure erosketa  
osoa.**

Uztailaren  
**22**tik **24**ra



Aurrezki gehiago bazkide izateagatik



\***Deskontu-txarteletan itzuliko dizugu.** Deskontu-txartelen bidez gehienez lor daitekeen zenbatekoa: 150€ (deskontu-txartelak jaulkitzeko erosketaren gehieneko kopurua: 600€). Deskontu-txartel bakoitzak 20€-ko balioa izango du gehienez. Ezinbestekoa izango da EROSKI club txartela aurkeztea txartelak jaulki eta erabili ahal izateko. **Uztailaren 23tik urriaren 16ra arte erabili ahalko dira,** trukatu beharreko txartel bakoitzeko gutxienez 50€-ko erosketa bat eginda. Egun eta erosketa bakoitzeko txartel bat baino gehiago trukatu ahal izango da. Kontsultatu gainerako baldintzak atxikitako saltokietan. **Abadiño:** Murueta Kalea. **Amorebieta:** Luis Urrengoetxea, 16; Nafarroa, 3; San Miguel, 12. **Berriz:** Iturriza, 39. **Durango:** Pagasarri, 5; Grupo San Ignacio, 2; Kanpatorrosteta. **Iurreta:** Fray Juan de Azkondo, 3.



**EROSKI**

zurekin



# Abadiñoako Udalak eta URAk N-634tik Trañapadurarako zubiaren eraikuntza finantzatzeko hitzarmena sinatu dute

Abadiñoako Udalak 1.200.000 euro inguru ipiniko ditu; Mikel Garaizabal alkateak erakundeen arteko lankidetzaz azpimarratu du osoko bilkuran

**ABADIÑO • ARITZ MALDONADO**

Matienako hirigunetik trafiko astuna ateratzea geroago eta hurbilago dago. Azken osoko bilkuran, Abadiñoako udalbatzak onartu egin du udalbatzak N-634 errepedetik industrialdera sartzeko ahalbidetuko duen zubiaren eraikuntza URAgaz batera finantzatzeko akordioa. Hitzarmen berriagaz, Uraren Euskal Agentziak bere gain hartuko ditu obren kontratazioa, zuzendaritza eta ikuskapen teknikoa. Horrez gainera, aurrekontuaren heren bat inguru finantzatuko du; URAk 516.144, 40 euro ordainduko ditu, eta Abadiñoako Udalak 1.211.365,34 euro. Horrez gainera, lurzoruen kudeaketaz eta lanak kontratatatzeko behar diren lizentzia eta administrazio-baimenak lortzeaz arduratuko da udala.

Mikel Garaizabal Abadiñoako alkateak bilkuran azpimarratu zuen erakundeen arteko elkarlana gako izan dela proiektua aurrera ateratzeko. "Erakundeen arteko lankidetzari eta lanari eskerrak

proiektua desblokeatu ahal izan dugu, eta horri balioa eman behar diogu. Gaur egun aukera zehatza dago inguru horretako trafikoari behin betiko soluzioa emango dion zubi berria egiteko", azaldu zuen. Izan ere, proiektua "hamarkada bi baino gehiago" atzeratu dela ere azpimarratu zuen. EAJren eta Abadiñoako Independenteen botoekin onartu zen hitzarmena.

## **EH Bilduren abstentzioa**

EH Bilduk abstentziora jo zuen bozketan honetan. Erakundeen arteko elkarlanagaz ados egon arren, koalizio subiranistako kideek "ez dute ulertzen" zelan utzi daitekeen "obraren kontrola" beste erakunde baten esku. "Ondo ikusten dugu URAk ardura hartzea eta zati bat ordaintzea, baina ez dugu ulertzen Matiena auzorako eta Abadiñoako estrategikoa den proiektu baten kontrola beste erakunde baten gain uztea", azaldu zuen Mikel Urrutia EH Bilduren bozeramaileak.



Zubi berriak herrigunetik trafiko astuna aterako du.

## 'Su á feu' ikuskizunagaz itxiko dute Zaldibarko Uda Kulturala zikloa

Deabru Beltzak kale antzerki taldeak suz eta perkusioz osaturiko emanaldia eskainiko du gaur, 22:00etan; ekainean hasita, hogeiki ekitalditik gora egin dituzte Zaldibarren

**ZALDIBAR • A.M.**

Zaldibarko Uda Kulturala zikloa borobilduko dute gaur, Deabru Beltzak kale antzerki taldearen *Su á feu* ikuskizunagaz. Euskal Herria kaletik hasi eta udaletxe plazan amaituko dute emanaldia. "Etorkizunekoak diruditen pertsonaia bitxi batzuek kalea hartzen dute erritmo desberdine-

kin eta su primitiboagaz", azaldu dute Deabru Beltzak taldeko kideek.

Deabru Beltzak taldea 1996. urtean jaio zen, kale antzerki ibiltariak sortu eta diseinatzeko helburuagaz. 25 urte geroago, taldea mundu osoan zehar ibili da bere ikuskizunekin. 35 herrialde baino gehiagotan egon dira; Alema-

nian, Kolonbian, Venezuelan eta Kroazian, besteak beste; hamar antzezlan aurkeztu dituzte urteotan. *Su á feu* ikuskizunean, ibilbide osoko bizipenak islatzen dituzte. "Bizitako esperientziak, sorkuntza, originaltasuna, energia eta konpainiaren esfortzu guztia kale antzerkiak bere tokia izan dezan", adierazi dute.



'Su á Feu'. @PABLOURKIOLA

## Astolako igerilekuetako estalkiaren lizitazioa uztailean egitea aurreikusten du udalak

Proiektuak 1,2 milioi euroko aurrekontua izango du

**ABADIÑO • A.M.**

Astolako igerilekuetako estalkiaren lizitazioa uztailean egingo dela azaldu zuen Mikel Garaizabal alkateak Abadiñoako Udalaren azken osoko bilkuran. Alkatearen esanetan, "Orain arte izandako arazoei amaiera ematea hurbilago dago". Javi Crespo

alkateordeak ere "beharrezko aurrerapauso lez" ikusten du estalkiaren lizitazioa. Udalak 1.286.572 euroko aurrekontua bideratuko du, hasteko. Enpresek irailera arteko epea edukiko dute euren proposamenak aurkezteko.



Astolako igerilekuak.



# Mankomunitateko Plan Estrategiko berria "elkartasuna, ekitatea eta ongizatea" sustatzeko bokazioz jaio da

EH Bilduk plana kritikatu du, gizarte zerbitzuek "pisu gutxi" dutela eta planak hondakinen zerbitzua "privatizatze" ate bat zabaltzen duela iritzita. Mankomunitateko pertsonala "egonkortze" neurrikeri ere ez dela jasotzen gaineratu du



Mankomunitateko ordezkari politikoak. Ezkeretik eskumara, Josune Escota, Javi Crespo, Mireia Elkoroiribe eta Iñaki Totorikaguena.

## DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Mankomunitateak 2021-2024 denboraldirako Plan Estrategikoa aurkeztu du asteon, eta Durangaldeko zerbitzu publikoak "modu solidarioan, eraginkorrean eta jasangarrin" eskaintzea da lehentasunetarikoa. Mireia Elkoroiribe buru duen erakundeak banakako hamar elkarrizketa egin ditu Mankomunitatearen parte diren herrietako alkateekin. Galdetegiak banatu ditu beharginen artean, elkarrizketak egin ditu alderdi politikoekin, eta azpimarratu du "oposizioko alderdi nagusia" ere aritu dela "talde motorean", EH Bildu.

Diagnosi hori egin eta gero, Mankomunitateak Plan Estrategikoan jaso ditu helburu nagusiak. Mankomunitateko iturrien esanetan,

honako hauek lirateke helburu estrategikoetarikoz batzuk: Mankomunitatea bera gizarte, ekonomia, ingurumen eta jasangarritasunaren alde egiten duen erakundea izatea, osasuna eta ongizatea hobetzeko lan egitea, lan duina sustatzeko lan egitea, denboran zehar gerta daitezkeen gorabeheren arabera zerbitzuak etengabe egokitzen joatea, administrazio hurbilago eta eraginkorrago baterantz jotzea, edo berdintasun politikak garatzea.

## "Privatizazio" ate bat

EH Bilduren esanetan, Plan Estrategiko berriak "hondakin zerbitzuaren privatizazioari" zabaltzen dio ate. Hori dela-eta, koalizioak ez du Plan Estrategiko berria babestu. Hiru arrazoi eman ditu horretarako. Euren esanetan, planak hondakin zerbitzuaren privatizazioari zabaltzen dio ate, gizarte zerbitzuak "zeharka" lantzen dira testuan, eta, horrez gainera, Mankomunitateko pertsonala "egonkortze neurrikeri" ez dira aintzakotzat hartzen.

# 'Ez da kasualitatea' bertso saio musikatua Garaiko kultur egitarauaren barruan

Garaiko Udalak hainbat ekintza antolatu du datorren astera begira. Ekitaldietara joateko, izena eman behar da



'Ez da kasualitatea' ikuskizunaren emanaldi bat. BERTSOA.EUS.

## GARAI • EKAITZ HERRERA

Udalak kultur programa bat presatu du datorren astera begira. Ikuskizunetara sartzeko, derrigorra da alde aurretik izena udal-etxean ematea. Hauxe da egitaraua:

- **UZTAILAK 26** • 'Isiltzen joan zirenak' - Lourdes Iriondo - Hego haizearen ipuinak, 19:00etan, Elizabarrin. Izena emateko epemuga: uztailaren 23a.

- **UZTAILAK 27** • 'Potxin eta Patxin' pailazoak, 17:30ean, frontoian. Izena emateko epemuga: uztailaren 23a.

- **UZTAILAK 28** • 'Maite Franko umeentzako ipuin kontalaria, 3 urtetik gorakoentzat. Kultur Etxean, 17:30ean. Izena emateko epea zabalik uztailaren 27ra arte.

- **UZTAILAK 30** • 'Ez da kasualitatea' bertso saio musikatua. (Gai jartzaila: Amaia Agirre / Bertsolariak: Alaia Martin, Nerea Ibarzabal eta Miren Amuriza. / Musikariak: Gari Otamendi eta Ixak Arruti). 19:00etan hasita, frontoian edo plazan, eguraldiaren arabera. Izena emateko epemuga: uztailaren 28a.

# Abadetxeak bertso saioa eta karaokea antolatu ditu

Silveira eta Lagoma egongo dira, besteak beste

## IURRETA • AITZIBER BASAURI

Hiru bertsolari nafar eta iurretarrak. Iurretako Abadetxeak bertso jaialdia antolatu du lau bertsolariak batuta. Xabier Silveira, Aitor Larreta, Erika Lagoma eta Eneko Abasolo 'Abarkas' bertsolariak saioa eskainiko dute, uztailaren 24an, zapatuan, Iurretako Abadetxean. Igor Galarza abadiñarrak ipiniko dizkie gaiak. Bertso saioa 19:00etan hasiko da.

Erika Lagomak eta Xabier Silveirak Nafarroako txapelketan parte hartuko dute urrian. Aurre-sailkapenean aurrera egin dute bertsolari biek. Bestalde, Eneko Abasolo 'Abarkas'-ek Bizkaiko txapelketako finalurrekoetan parte hartuko du urrian. Beraz, udan egindako plazak txapelketa biak

prestatzeko erabili ahal izango dituzte.

Abadetxeak bakarkako ibilbideari ekin zion joan zen ekainean, Plazaratu dinamika utzitako lekuakoari helduta. Etapa berri horren barruan antolatu du Abadetxeak bertsolarien arteko topaketa hau zapatarako. Aurrerago, Durangaldeko bertsolariak Baztan aldera joango dira bertsoan. Halaxe azaldu dute Abadetxeako ordezkariak.

Bertso saioaren ondoren, trikiti doinuek berotuko dute plazako giroa. Egunari amaiera emateko, karaokean parte hartzeko aukera ere izango dute saiora bertaratuko diren bertsozale guztiek.

Bulegorako zigiluak  
Fotolitoak

**Betikoak**  
flexografia

946 202 241  
Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA

**Arrike**  
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 946 201 893  
Faxa: 946 816 403

**DIBA**  
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



# Abadiño, Elorrio, Durango eta Zornotza pandemiaren eremu gorrian daude

Kasu positiboek gora egin dute eta Durangaldean 502 kasu atzeman dituzte 14 egunetan



Kasu positiboek gora egin dute eskualdean.

## DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Durangaldean kasu positiboek gora egin dute, eta azken hamalau egunetan 502 positibo atzeman dituzte eskualdean, joan zen astean baino 124 gehiago. Gainera, eskualdeko herririk handienak, hau da, Abadiño, Durango, Elorrio eta Zornotza pandemiaren eremu gorrian daude.

Eskualdeko gainerako herrietan ere gora egin dute kasu positiboek. Iurretan, 26 positibo egon dira azken hamalau egunetan, Berrizen 22 eta Otxandion 29.

## Otxandion jairik ez

Azken egunetako kasu positiboek eta egungo egoera epidemiologikoak hilaren 23tik 25era bitarteko ekimenak bertan behera uztera behartu dute Otxandioko Udala. Udaletik jakinarazi dutenez, asteburuko ekitaldi guztiak bertan behera utziko dituzte, bat salbu.

## Otxandioko Udalak bertan behera utzi ditu hilaren 23tik 25erako ekimenak

1936ko bombardaketan hildakoak gogoratzeko ekitaldia baino ez dute egingo. Andikonako ekitaldia "formatu xumean" egingo duela iragarri du udal gobernuak, eta osasun neurri guztiak "bermatuko" direla.

## Politikan

Mireia Elkororibe  
Zenikaonandia  
EAJ



## Turismoa motor ekonomikoa gisa

Durangoko EAJ udal taldeak 20.000 euroko partida bat sartu zuen udal aurrekontuetan, udalerriko turismo kanpaina bat diseinatzeko, uda honetan turistak herrira erakartzeko helburuarekin. Eta joan den maiatzean proposamen zehatz bat aurkeztu genuen, pakete eta plan berriekekin, Durangorako turismo-helmuga gisa irudia indartzeko.

Kanpaina hori dagoeneko martxan dago, baina gobernu taldeak kanpainaren diseinuan eta horren inguruan hartu beharreko erabakietan parte hartzeko konpromisoa hartu bazuen ere, ikusi dugu beste behin ere ez dutela inork kontuan hartu gehien komeni zaien komunikabideetan publizitate-kanpaina bat diseinatu, eta eurek aukeratutako leloarekin, kanpainaren helburua edo nori zuzendu behar zaion kontuan hartu gabe.

## EAJk turismoaren aldeko apustua egiten jarraitzen du Durangon

EAJk turismoaren aldeko apustua egiten jarraitzen du Durangon, hain beharrezkoak diren garai hauetan eragile ekonomikoa gisa. Gure udalerrira turistak erakartzeko eta ondo diseinatutako publizitate-kanpaina bat beharrezkoa da herriko taberna eta dendei laguntzeko, eta uste dugu une egokia dela publizitate-kanpaina egoki bat abian jartzeko. Momentu honetan kanpaina hori martxan dago gure emendakinarri esker, nahiz eta diseinuan erabakitzeak aukerarik ez diguten eman. Gure helburua beti izango da Durango aurrera egitea.

## Durangaldea asteen

### Ezkurdiko kioskoa berrinauguratuko dute, Durangoko udal musika bandagaz

**Durango** | Durangoko Udalak asteburu honetan amaituko du Ezkurdiko kioskoa berriztatzen. Lanak amaituta, herriko toki "enblematiko" bat berreskuratuko du. Berrinaugurazio ekitaldia domekan egingo dute, 13:30ean, Durangoko udal musika bandaren kontzertuagaz. Aurretik, Abel Iriondo dantzariak aurrekua dantzatuko du.

### Elorrioko Udalak 6.000 euro ipiniko ditu lehen sektoreari bultzada emateko

**Elorrio** | Elorrioko Udalak 6.000 euroko partida ekonomikoa ipini du Elorrioko lehen sektorea bultzatzeko. Jarduketan horren bitartez, 2021. urteari dagozkion baliabide materialen eta proiektuak gauzatzeko beharrezkoak diren lanen kontratazioaren gastuak finantzatzeko dituzte udalak, eta baita soilik ugalketarako eta espezieak hobetzeko diren animalien erosketak ere, besteak beste.

### Epaileak 'Costumero auziko' lau funtzionario auzipetuak absolbitu ditu

**Durangaldea** | Bizkaiko Foru Aldundiak alabaren zaintza kendu zion Irune Costumerori, 2017an. Guraso Alienazioaren Sindromea (GAS) ipini zuen argudiotzat esku-hartze horretarako. Costumerok Aldundia salatu zuen eta eguaztenean heldu zen epaia: auzipetutako lau funtzionarioak, tartean Sergio Murillo durangarra, absolbitu eta arrazoia eman dio Aldundiari.



## Dagoeneko martxan da ANBOTOK antolatzen duen udako argazki lehiaketa

**Durangaldea** | Zazpi urte pasatu dira ANBOTOK irakurleen argazkilaria senari bide eman eta udako argazki lehiaketa antolatzen hasi zenetik. Aurten ere, arlo bitan aurkeztu ahal izango dira argazkiak: eskualdeko argazkilarik onena eta eskualdetik kanpoko onena.

Parte-hartzaile bakoitzak lau argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez, kategoria bakoitzeko bi, eta aurretik beste lehiaketetan saritu bakoak izan beharko dira.

Argazkiak irailaren 19a baino lehen ipini beharko dira ANBOTOn webgunean ([www.anboto.org](http://www.anboto.org)).

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

hitz  
liburudenda

artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

#nobedadeak



EURI ZITALARI ESKER  
Ibaro Borda  
(Susasa)




IZARAK  
Goizane Aizpurua  
(Alberdania)



EGUN GORRIETAN  
Elena Martinez  
(Alberdania)



LAZUNAK AZKAZALETAN  
Oihana Arana  
(Susasa)



JULES JAUNA  
Monin Ducoudray  
(Harriet)





# MALLABIA ETA MAÑARIA 2021





## Mallabia 2021

## Abuztuak 14, zapatua

**17:00 Mr Frack zirkua eta umorea** parkeko aterpean

**21:15 Pilota partiduak** herriko frontoian:  
Elordi - O.Etxebarria vs. Larrazabal - Uriondo  
eta Urrutikoetxea - Martija vs. Ezkurdia - Imaz  
\*gehienez 180 lagun

## Abuztuak 15, domeka (Andra Mari eguna)

**11:00 Meza** jasokunde parrokan

**12:15 Mallabiko dantzariak** plazan. Euria bada, herriko frontoian  
\*gehienez 180 lagun

**16:00 Mallabiko Gizonezkoen XXXI. eta Emakumezkoen I. harri-jasotze saria** Harri txikia herriko frontoian  
\*gehienez 180 lagun

**19:00 'Jule' kale antzerkia** parkean. Euria bada, CIP-eko futbito zelaian  
\*gehienez 180 lagun

**22:00 Gozategi** taldea parkean. Euria bada, herriko frontoian  
\*Parkean: gehienez 200 lagun  
\*Frontoian: gehienez 180 lagun

## Abuztuak 16, astelehena

**11:00 Meza** Jasokunde parrokan

**12:30 Capicua** taldearen 'Koselig' ikuskizuna herriko frontoian  
\*gehienez 180 lagun

**16:00 /17:30/ 19:00 Berdintasunaren aldeko Escape rooma kultur etxean**  
\*12 urtetik aurrera. 6 pertsonako taldeak

**20:00 Luhartz taldea** parkean. Euria bada, frontoian  
\*Parkean: gehienez 200 lagun  
\*Frontoian: gehienez 180 lagun

## PILOTA PARTIDURAKO SARRERAK

Sarrerak abuztuaren 2tik 13ra salgai udaletxean.

Mallabiko langabe, ikasle (18 urtetik beherakoak), jubilatu eta pentsiodunentzat 12 €, justifikatzeko txartela erakutsita. Gainerako mallabitarrentzat 18 €. Partidu egunean, leihatila 20:30ean zabalduko da eta sarrerak prezio bakarra izango dute: 25€

## MALLABIKO GIZONEZKOEN XXXI. HARRI-JASOTZE SARIA

100 kg-ko zilindro zaharra / 100 kg-ko bola

PARTE HARTZAILEAK:  
Manex Zubizarreta (Zarautz)  
Jagoba Otaegi (Aizarna)  
Beñat Vicario (Donostia)  
Iraitz Arruti (Zarautz)  
Mikel Lopetegi «Urra» (Zarautz)  
Julio Jimenez (Arévalo)  
Hodei Iruretagoiena «Izeta V» (Zarautz)  
Petre Bulgarea (Errumania)  
Xabat Olaizola (Zarautz)  
Eneko Bilbao (Kortezubi)  
Iñigo Eizagirre (Zarautz)  
Jon Gisasola «Zelai IV» (Mallabia)  
Jesus M. Iruretagoiena «Izeta III» (Aizarnazabal)

## MALLABIKO EMAKUMEZKOEN I. HARRI-JASOTZE SARIA

62,5 kg-ko zilindro zaharra / 162,5kg-ko bola

PARTE HARTZAILEAK:  
Marina Blanco (Palencia)  
Lucia Orbe (Bilbo)  
Udane Ostolaza (Orio)  
Karmele Gisasola "Zelai III" (Mallabia)

## SARIAK

1. 900 €, garaikurra eta txapela
2. 750 € eta garaikurra
3. 600 € eta garaikurra

Gainerako parte hartzaileentzat 300 €-ko dieta.  
Dagoen marka hausten duenari, 200 €.  
Sari hauek atxikipen fiskala izango dute.



Hondakin ez arriskutsuen kudeatzailea: eus/03804

**RECICLAJES METALÚRGICOS  
JESÚS M.ª CORDÓN, S.L.**

Goitondo-Golkoa poligonoa, z/g - P3A - 6/8 pabeloia  
48269 MALLABIA (Bizkaia)  
Apdo. 181 • 48260 ERMUA  
T./F.: 943 174 581 - M. 619 569 595



HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEN  
KUDEATZAILE BAIMENDUA EUX/008/04

**HIERROS & METALES  
SAINZ**

**TXATARREN SALEROSKETA**

Alto de Areitio - 48269 MALLABIA • Apdo. 58 - 48260 ERMUA  
Tel.: 943 171 400 - Fax 943 171 489  
hierrossainz@hierrossainz.es

[www.hierrossainz.es](http://www.hierrossainz.es)



**BETEARTE**  
Hondakin ez arriskutsuen zabortegia

BI-3342 errep. Areitio garaia MALLABIA pk. 38  
Tel.: 943 170 307 - Faxes: 943 176 160  
info@betearte.com [www.betearte.com](http://www.betearte.com)



**ZELAI  
ATXITXE**

HILARRIAK  
KANPOSANTUKO  
LANAK

Zelai - Mallabia  
zelai@atxitxe.net  
Tel.: 656 706 468 /  
656 706 467



**METALEN BERRESKURAPENA,  
BIRZIKLAPENA  
ETA KUDEAKETA**

Tel.: 943 172 810  
676 27 15 07



MAQUINARIA Y MULTIHUSILLOS, S.L.  
**Maymu**

BURU ANITZEKO TORNUETARAKO  
ORDEZKO PIEZEN ETA PIEZA OSAGARRIEN  
BERRERAIKITZEA, KONPONKETA,  
MANTENUA ETA SALMENTA

Pol. Ind Goitondo Behekoa -  
naves 3 / 4 MALLABIA-BIZKAIA  
Tel.: 94 657 00 94 - maymu@maymusl.com  
[www.maymusl.com](http://www.maymusl.com)

**Excavaciones  
BOLIÑA**  
Mallabia - Bizkaia

• 629 340 410 •  
• 618 954 280 •  
excavacionesbolina@hotmail.es



**hierros  
arrate, s.a.**

Goitondo Industrialdea, MALLABIA  
Ermuatik Markinarako bidean | 127 PK - 48260 Ermua |  
Tel.: 943 170 612 / 943 170 616 | [www.hierrosarrate.es](http://www.hierrosarrate.es)



# Gozategi eta Luhartz taldeen kontzertuek Mallabiko gauak alaituko dituzte abuztuan

Kirol ekitaldiak ere antolatuko dituzte. Profesionalen pilota partiduan, Elordi mallabitarrek eta Etxebarriak Larrazabalen eta Uriondoren aurka jokatu dute. Harri-jasotze sarian ere mallabitar bik parte hartuko dute: Jon Gisasola Zelai IV.ak eta Karmele Gisasola Zelai III.ak.

## MALLABIA • J.D.

Andra Mari jaiak antolatuko ez dituzten arren, kultur eta kirol egitaraua prestatu dute egun horietarako. Segurtasun neurriak hartuta, eta aforo mugatuagaz bada ere, zenbait ekitaldi antolatuko dute abuztuaren 14tik 16ra bitarterako. Umeentzako Mr Frack ikuskizunagaz abiatuko dute egitaraua. Ikuskitzuna zirkua eta umorea uztartzen ditu eta aterpean egongo da ikusgai, abuztuaren 14an. Iluntzean, profesionalen pilota partidua jokatu dira frontoian. Aitor Elordi eta Oier Etxebarria Iker Larrazabalen eta Endika Uriondoren kontra arituko dira. Bestalde, Mikel Urrutikoe txekak eta Julen Martijak Joseba Ezkurdiaren eta Ander Imazen aurka neurtuko dituzte indarrak. Pilota partiduetako sarrerak abuztuaren 2tik 13ra egongo dira salgai, udaletxean. Mallabiko langabe, ikasle (18 urtetik beherakoak), jubilatuta eta pentsiodunentzat 12 eurokoa da sarrera. Gainerako mallabitarrek 18 euro ordainduko dituzte. Partiduen egunean, 20:30ean zabalduko dute leihatila, eta sarrerek prezio bakarra izango dute 25 euro. Abuztuaren 15ean, Andra Mari egunean, meza egongo da, Jasokunde parrokan. Mezaren ondoren, dantzarien saioa izango da.



Gozategi taldea.

**Pilota partiduetarako sarrerak abuztuaren 2tik 13ra egongo dira salgai, udaletxean**

### Harri-jasotzaileak

Egitarauko ekitaldi nagusietariko bat Mallabiko Gizonezkoen XXXI. eta Emakumezkoen I. Harri-jasotze saria izango da. Gizonezkoetan 100 kiloko zilindro zaharra eta 100 kiloko bola erabiliko dituzte. Parte-hartzaileen artean, Jon Gisasola Zelai IV. mallabitarra arituko da.

**Mallabiko Gizonezkoen XXXI. eta Emakumezkoen I. Harri-jasotze saria izango da abuztuaren 15ean**

Bestalde, emakumezkoen sarian 62,5 kiloko zilindro zaharra eta 62,5 kiloko bola erabiliko dituzte. Parte-hartzaileen artean, Karmele Gisasola Zelai III.a izango da. Irabazleak 900 euroko saria eskuratuko du. Bigarrenak 750 eurokoa, hirugarrenak 600 eurokoa eta laugarrenak 500eko.

**LARZEP**  
HYDRAULIC

Urutiaga etorbidea, 6  
MALLABIA  
info@larzep.com  
Tel.: 943 17 12 00



**RHEYDE**  
lanabesak s.l.

- ✓ PERFILATUAK
- ✓ MOLDAKETAK
- ✓ BERRESKURATZEAK

Goitondo ind., 3. pab. - 48269 MALLABIA  
184 PK - 48260 ERMUA  
Tel.: 943 170 898 - rheyde@rheyde.com



**Industrias FOCs, S.L.**

TROKEL PROGRESIBOEN DISEINUA ETA FABRIKAZIOA  
TRESNERIAREN FABRIKAZIOA  
HARI BIDEZKO PIEZAK ETA DOITASUN HANDIKO BARNERATZEA


Goitondo poligonoa - Goikoa, z/g - 48269 MALLABIA - Tel.: 943 171 744 - E-mail: focs@focs.es



www.focs.es

**GOIMEK**

**GOIMEK** ere mallabiarrekin



DANOBATGROUP

www.goimek.com





# 'Errimak bi oinetan' ikuskizuna Mañarian, abuztuaren 15ean

Aurten ez da jairik izango Mañarian, baina hainbat ekintza kultural antolatu dute abuztuko egun horietarako

## MAÑARIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aurten Mañarian herriko jairik egongo ez den arren, hainbat kultur ekitaldi antolatu dute abuztu erdirako. Egitarau horren barruan, mañariarrek hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute, tartean Haatik dantza konpainia gipuzkoarraren *Errimak bi oinetan* ikuskizunaz. Saioa abuztuaren 15ean izango da, 18:30ean.

*Errimak bi oinetan* garai bateko eta gaur egungo bertso eta

doinuez osaturiko emanaldi dibertigarria da. Bertso ariketa eta jokoak dantzara eramatea da ikuskizun honen berezitasuna. Gainera, dantza horien bitartez gaurkotasanari buruzko gogoeak plazaratzen dituzte, kanta ezagunei eta bertso sorta zahar eta berriei mugimendua emanez.

Ikuskizunean bost dantzarik parte hartzen dute, eta Sustrai Colinaren, Xalbadorren, Aitor Mendiluzeren, Lazkao Txikiren, Uxue Alberdiren, Odei Barroso-

ren eta beste hainbat bertsolarien doinupean dantza egingo dute.

Ekitaldi horren aurretik, beste hainbat gauza egongo da Mañarian; meza eta herriko umeen eta afizionatuen pilota partiduak, besteak beste.

Bestalde, aurreko egunean, abuztuaren 14an, Eñaut Elorrietak kontzertua eskainiko du. Kontzertua 22:00etan hasiko da.

**Eñaut Elorrietak kontzertua eskainiko du abuztuaren 14an; 22:00etan hasiko da**

## Izena ematea beharrezkoa

Antolatzaileek jakinarazi duteenez, ekintza kultural hauetan parte hartzeko aurrez izena ematea ezinbestekoa izango da.



Abuztuaren 15ean izango da ikuskizuna.



Eñaut Elorrieta.

## Mañaria 2021

Abuztuak 14, zapatua

**22:00 Eñaut Elorrieta**

Abuztuak 15, domeka

**11:00 Meza ondoren herriko dantzariak**

**12.30 Mañariko umeen eta afizionatuen pilota partiduak**

**18.30 Errimak Oinetan**

**GARATE**

Mañondo Baserria, 10  
Tel.: 946 815 600  
48213 Izurtza

Aldegoiena Auzoa, 2 -A · MAÑARIA  
Tel/Faxa: 94 681 87 98 · zuagi@hotmail.com

Maderas  
Zugazagoitia  
y Agirre  
S.L.



MAÑARIKO  
UDALA



**EZ EZETZ DA!**  
**JAIK ERRESPEZUZ GOZATU!**



# BURUARI KLIK!





# IKUSI MAKUSI

G letragaz hasten da eta A letragaz amaitzen da. Zer da?

  G                       

Beheko irudia ikusita galdera hauei erantzun:

Zenbat pertsona daude? .....

Zenbat jostailu? .....





A





# MARGOTU

---

Margotu ezazu beheko dragoia gurago duzun moduan.








# merkataritza gida sarean

[anboto.org/gida](http://anboto.org/gida)



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko  
merkataritza gida BERRIA  
euskaraz eta sarean!***

**Merkatari gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902**  
**Argazkiak - Datuak - Kokapena**  
(urtean 50€)





## Gerediaga auzoa

ERROMERIA PLAZATIK KULTURGUNERA  
ABADIÑO :: Abuztuaren 5etik 7ra

### Luhartz, Puro Relajo, trikitilariak eta bertsolariak

Abadiñoko Gerediaga auzoan jairik antolatuko ez duten arren, hainbat kultur ekitaldi prestatuko dituzte. Abuztuaren 5ean, iluntzean, Donien Atxa jasoko dute. Abuztuaren 6an, meza izango da, 12:00etan, eta ondoren dantzariak. 17:00etan, Luhartz taldeak Euskal Herriko erromerien historia laburra egingo du. Eta, 22:00etan, Puro Relajo talde nafarraren ran-

txerak izango dira entzungai. Abuztuaren 7an, 21:00etan, Ansozregi eta Larrañaga trikitilariak igoko dira oholtza gainera. 22:00etan, bertsolariak: Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Erika Lagoma. Gai jartzailea: Maite Berriozabal. Osasun neurriak beteko dira. Aforo mugatua. Lekua hartzeko, deitu uztailearen 30etik aurrera: 626945623.

## Uztailearen 23an

**BERRIZ antzerkia**  
**'Jawor' (Polonia)**,  
19:00etan, Olakueta plazan.

**MAÑARIA musika**  
**Olatz Salvador**, 18:30ean,  
**Dupla**, 20:30ean, plazan.

**DURANGO musika**  
**'Beltxarga Beltza'**  
**(Ibil Bedi)**, 21:00etan,  
Platerueneko terrazan (euria bada, Landako Gunean).

**ELORRIO musika**  
**The Cuban Jazz Syndicate**,  
20:00etan, Ganondo parkean.

**ZORNOTZA antzerkia**  
**'Gazte' (Hika Teatro)**,  
19:00etan, Amorebieta IV  
Frontoian.  
**'Kotondarrak' (Anita  
Maravillas txotxongilo  
konpainia)**, 18:00etan,  
Zornotza Aretan.

**ZORNOTZA musika**  
**'Dantzaren doinuak'**  
**(Zornotzako Musika  
Banda)**, 21:00etan,  
Jauregiarriako  
aparkalekuan.

**ZORNOTZA musika**  
**Inun**, 20:00etan, Euban.  
**Akabu + Zeinke**, 20:00etan,  
Beheko eskolan

## Uztailearen 24an

**ABADIÑO erakustaldia**  
**Freestyle bike (Fun  
Box Factory)**, 18:00etan  
20:00etan Matienako  
frontoian.

**DURANGO errezitaldia**  
**'Como hace 3.000 años'**  
**(Hector Alterio & Jose Luis  
Merlin)**, 20:00etan, Benita  
Uribarrena parkean.

**ELORRIO musika**  
**Petti**, 20:00etan, Ganondo  
parkean.

**ZORNOTZA musika**  
**Jon eta Iratxe**, 20:00etan,  
Zubizabalan.

**ZORNOTZA musika**  
**Triki Piu Pand**, 18:30ean,  
Amorebieta IV Frontoian.

**ZORNOTZA musika**  
**Amak**, 21:00etan,  
Jauregiarriako  
aparkalekuan.

## Uztailearen 25ean

**ELORRIO musika**  
**Audience**, 19:00etan,  
Ganondo parkean.

**OTXANDIO omenaldia**  
**Andikonako omenaldia**  
**(85. urteurrena)**,  
13:00etan.  
Andikona plazan. Segurtasun  
neurri guztiak beteta.

**ZORNOTZA bertsoak**  
**Leire Vargas, Oihana  
Arana eta Irune Basagoiti**  
**bertsolariak**, 20:00etan,  
Beheko eskolan.

**ZORNOTZA musika**  
**Orband Secret**, 20:00etan,  
Etxano auzoan.

## Uztailearen 25era bitartean

**DURANGO erakusketa**  
**'Regoyos. Durangoko  
begirada inpresionista'**,  
Arte eta Historia Musean.

## Uztailearen 29an

**ABADIÑO jolasak**  
**Paintball jardunaldia**,  
12tik 17 urtera bitarteko  
umeei zuzenduta, Astola  
futbol zelaian: 11:00etatik  
14:00etara eta 17:00etatik  
19:00etara. Izena emateko,  
Errota kultur etxean edo Udal  
Mediatekan, uztailearen 26a  
baino lehen.

## Uztailearen 30ean

**DURANGO musika**  
**'Expuesto' (Jhonger  
Zambrano)**, 21:00etan,  
Platerueneko terrazan.

**ELORRIO musika**  
**Maria Berasarte**,  
20:00etan, Ganondo parkean.

## Uztailearen 31n

**DURANGO antzerkia**  
**'Legea gu gara' (Cia  
BarSanti)**, 20:00etan,  
Aurora Abasolo parkean.

**ZORNOTZA musika**  
**Inazio Deunaren Eguna**,  
Belatxiketa auzoan.  
**Bertsolariak: Beñat  
Ugartetxea eta Alain  
Barañano**, 10:30ean.  
**Trikitixa: Izaro Gastelu,  
Iratzi Gastelu eta Olatz  
Alberdi**, 11:00etan.  
**Aizkolariak: June  
Mendieta, Done Intxausti  
eta Xabier Garcia 'Utxu'**,  
11:30ean.  
**Kontzertua: Pantxo  
Balbuena**, 12:00etan.

## Abuztuaren 1ean

**ELORRIO musika**  
**Ene Kantak**, 19:00etan,  
Ganondo parkean.

## Abuztuaren 6an

**DURANGO musika**  
**Bulego**, 21:00etan,  
Platerueneko terrazan (euria bada, Landako Gunean).

## Abuztuaren 7an

**DURANGO musika**  
**Urbasa (Hutsun eta Ortzi)**,  
20:00etan, Aurora Abasolo  
parkean (euria bada, Landako  
Gunean).

## Abuztuaren 14an

**DURANGO dantza**  
**'Imperfectas' + 'Out of  
the blue' (Cia Input eta  
LaRutan)**, 20:00etan,  
Ezkurdin (euria bada,  
Kurutziaiga ikastolan).

## Zinema

### :: Durango ZUGAZA

• **Space Jam. Nuevas  
leyendas**

barikua 23: 19:30/22:00  
zapateria 24: 18:00/20:30  
domeka 25: 17:00/19:30  
astelehena 26: 17:00/19:30  
martitzena 27: 17:00/19:30  
eguztena 28: 17:00/19:30

• **Space Jam. Aro Berria**

zapateria 24: 17:30  
domeka 25: 17:00  
astelehena 26: 17:00  
martitzena 27: 17:00  
eguztena 28: 17:00

• **El viaje de sus vidas**

barikua 23: 19:30/22:00  
zapateria 24: 19:45/22:00  
domeka 25: 20:00  
astelehena 26: 20:00  
martitzena 27: 20:00  
eguztena 28: 20:00

• **Misterio en Saint Tropez**

barikua 23: 19:30/22:00  
zapateria 24: 19:45/22:00  
domeka 25: 20:00  
astelehena 26: 20:00  
martitzena 27: 20:00  
eguztena 28: 20:00

• **¡A todo tren! Destino  
Asturias**

zapateria 24: 17:30  
domeka 25: 17:30  
astelehena 26: 17:30  
eguztena 28: 17:30

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Martxan da udako argazki lehiaketa.  
**Igo zure argazkiak**  
irailaren 20ra arte

**UDA KO**  
**7. ARGAZKI**  
**LEHIAKETA**

 **anboto**



Durangaldeko 2020ko  
argazkia  
**IRABAZLEA**



Durangaldetik kanpoko  
2020ko argazkia  
**IRABAZLEA**

**2 KATEGORIA SARITUKO DIRA**  
**-ESKUALDEKO ARGAZKIRIK ONENA**  
**-DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA**

ANTOLATZAILEA

 **anboto**

LAGUNTZAILEAK

  
databost  
informatika & telekomunikazioak

 **ERRIGORA**

  
Garaiko  
Landetxea

Informazio gehiago [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean



# “Azken kontzertuak formatu elektroakustikoan prestatu ditugu eta uste dugu harrera ona edukitzen gabiltzala”

Zornotzako eta Eako bost gaztek osatzen dute Eztandap; 'Kondor' lehenengo lana kaleratu dute oraintsu, punk eta blues ukituak dituen rock diskoa



Eztandap.

**MUSIKA • ARITZ MALDONADO**  
Eztandap boskotea Asier Fernandezek (gitarra), Asier Goikoetxeak (gitarra), Ion Ander Agorretak (baxua), Aratz Longok (bateria) eta Jonathan Santosek (ahotsa eta teklatuak) osatzen dute. Zornotzako eta Eako (Bizkaia) gazte hauek 2018an osatu zuten taldea.

**Zelakoak izan ziren taldearen lehenengo pausoak?**

Hasieran, Asik, Goikok eta Melasek osatzen genuen Eztandap, beste lagun batzuekin batera. Taldean aldaketa batzuk egon eta gero, Txonan eta Aratz batu zitzaizkigun eta publikoaren aurrean Zornotzako *Kantuz kantu* ekitaldian agertu

ginen lehenengoz. Proiektu horren barruan, Zornotzako antzinako abesti bi bertsionatzeko enkargua jaso genuen; *San Juan de la Porta Leña* eta *Azkuek* bere kantutegian jaso zuen *Agura Zarkillun*, Luciana Estankonari entzunikoa, hain zuzen ere. Horrela, herriko beste artista batzuekin batera CD bat grabatu genuen. Esperientzia honen ondoren, orain dela gutxi kaleratu dugun *Kondor* diskoako abestiak prestatzeari ekin genion.

**Oker ez banago, birritan grabatu dituzue diskoako abestiak. Zergaitik?**

Diskoa Julen Alberdi soinu teknikari eta baxujoleagaz (Blanco y en botella eta Supercremalleras) grabatu genuen. Lehenengo bost

abestiak grabatuta genituenean, Julenen ordenagailua hondatu egin zen eta eginiko lan guztia galdu

**Atzerriko musikak ere eragina izan du gudan: The Bellrays, Jimmy Hendrix edo Stevie Wonder aipatu ditzakegu beste askoren artean**

genuen. Berriro ere grabazioari ekin genionean, pandemiak harpatu gintuen eta dena gelditzera behartu gintuen. Hala ere, berriro

ere grabatzea aberasgarria izan da, patxada gehiagoz hartu genuelako grabaketa prozesua, eta emaitza, gure ustez, hobea izan da.

**Zer topatu dezake entzuleak?**

Entzuleak gure musikaz disfrutatzeari baino ez dauka. Euskal rocka oinarri, funk, punk eta blues estiloetatik pasaturiko erritmoak aurkituko ditu gure musikan.

**Zergatik 'Kondor'?**

Julenen estudioa Zornotzako Kondor industrialdean dago. Grabatzen hasi ginenean, konturatu ginen izen horrek lotura zuela gure abestietan erabiltzen genituen erreferentzia batzuekin. Hegazti mitologikoa izanik, ondo sinbolizatzen ditu gure letretan agertzen diren

influentzia mitologikoak (Ikarus edo Samhain abestietan, esaterako), edo hauen bitartez adierazten diren esperientzia gora-beheratsuak.

**Zeintzuk dira zuen eraginak, influentziak, musikalki?**

Taldeko guztiok gustuko dugu 80ko hamarkadan zegoen rocka. Horrez gainera, euskal musika taldeen jarraitzaileak izan gara betidanik; Kuraiarena edo gure inguruko Mockers eta Eskean Kristo taldeena esaterako. Atzerriko musikak ere eragina izan du gudan: The Bellrays, Jimmy Hendrix edo Stevie Wonder aipatu ditzakegu beste askoren artean.

**Zeri buruzkoak dira hitzak? Zelan inspiratzen zarete?**

Diskoak ez dauka gai finkorik. Abesti bakoitzari bere espiritu propioa ematen ahalegintzen gara. Batzuk gai sozialen ingurukoak dira, eta beste batzuk mitologiak baliatzen dira gure esperientzia pertsonalak adierazteko.

**Hainbat kontzertu eskaini duzue. Zelan moldatu zarete egungo osasun neurriekin jotzeko?**

Egia esan, pandemiak min handia egin du kulturaren, eta kontzertu asko bertan behera geratu dira. Hasieran ez zaigu erraza egin kontzertuetan jendea jesarrita eta musukoak ipinita ikustea, eszenatokitik bajatzea eta jendeagaz hartu-eman estua izatea gustatzen zaigulako. Egoera honi aurre egiteko, formatu elektroakustikoan prestatu ditugu azken kontzertuak, eta oraingoz nahiko harrera ona izan dutela uste dugu.

**Aurrera begira, zein asmo duzue?**

Oraingoz, gure asmoa *Kondor* erakusten jarraitzea da. Baditugu abesti berriak labean, baina oraindino lana dugu egiteko. Ia datorren urtean proiektu berri bat argitaratzeko gai garen. *Funkyd's* abestian diogun moduan: *The meantime means the whole* [Erdibidean aurkitu daiteke osotasuna].



## Durangaldean ostalaritzarekin, zerikusia duen negozioirik baduzu,

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian





## “Obra gordina da, baina ez dugu kontatzen gertatu ez den ezer; begiratu Samuel Luizen hilketari”

'La casa' Markel Ganboa antzerkigilearen azken dramaturgia lana da; obrak telebistako realityak eta Federico Garcia Lorcaren unibertso dramatiko batzen ditu

**ANTZERKIGINTZA • ARITZ MALDONADO**  
**Markel Ganboa antzerkigilea Durangon da egunotan. Oraintsu, 'La Casa' antzezlana aurkeztu du Malagako (Espainia) MaF jaialdian. Udazkenean Madrilen aurkeztea gustatuko litzaioke, eta horren ondoren Durangaldera ekartzea.**

### Nondik dator 'La casa'-ren ideia?

Konfinamenduan garatu genuen ideia. Lorcaren *La casa de Bernarda Alba*ren inguruko zerbait egin gura genuen, hura oinarri hartuta LGTBI kolektiboko istorio bat kontatu gura genuen. Prozesuan asko ikasi dugu, entseatu, probatu, eta akatsetatik ikasten aritu baikara. Famillia arteko istorio bat da, maitasunezko istorio bat, bere zentzurik zabalean. Istorioaren ardatza bikote baten hartu-eman da, baina Lorcak egiten zuen moduan, beste istorio batzuk azaleratzen dira gurean ere. Horrela, *La casa de Bernarda Alba* da bizkarrezurra, baina badu *Yerma*, *Bodas de Sangre* eta *Doña Rosita la soltera o el lenguaje de las flores* lanetatik ere zerbait.

### Bitxia da realityak eta Lorca lotzea.

Hasieran, guk ere uste genuen ezinezkoa izango zela, baina, tesuingurua kontuan hartuta, ikusi genuen ez dagoela hainbesteko alderik, telebistako saioetan ikusitakoak Lorcaren istorioetan ere gertatzen direla. Horrek gatazka bat sortu zigun: uste bezain ameslaria zen Lorca ala benetan ez dugu gizar-tean guk gura beste aurrera egin?

Prozesua luzea izan da, azarotik maiatzerakoa. Ez da ohikoena, baina emaitzagaz oso pozik gaude. Gordina da, baina ez dugu kontatzen gertatu ez den ezer. Pil-pilean dauden gaiak dira; begiratu, bestela, Samuel Luizen hilketari. Oraindino gauza asko geratzen zaigu lortzeko.

**Uste bezain ameslaria zen Lorca ala benetan ez dugu gizar-tean guk gura beste aurrera egin?**



**Markel Ganboa**  
Antzerkigilea eta  
'La Casa'-ren zuzendaria  
DURANGO | 1990

### Orain, zein ibilbide izango du 'La casa'-k?

Gure plana Madrilen eskaintzea da, eta gero bakoitzak bere sorterrian eskaintzea gura genuke. Niri gustatuko litzaidake Lorca Durangaldera ekartzea, gehiago ikustea, baina airtortu behar dut zeozer aldatu behar dela antzerkira hurbiltzeko.

**Pandemia hasieran harturiko neurriak egokitu egin beharko lirateke, gu ere sektore bat gara eta**

### COVIDak asko baldintzatu zaitu?

Madril European gehien kolpatu duen hiriburuetariko bat da. Urte gogorra izan da. Dena dela, harturiko osasun neurriak berrikustea ondo legokeela esatea gura nuke; izan ere, horietariko asko orain urtebete hartu ziren. Sektore bat garen neurrian, beharrezkoa dugu.

## Gai librean

### Isilaraziak (II)

Aste honetako zutabeen isilaraziekin jarraitzea erabaki dut, izan ere, emakume askoren ahotsak izan dira isilaraziak historian zehar, eta liburu bat baino gehiago idazteko adina informazio bildu daiteke.

Gaurkoan arteaz haratago joango naiz, literatura eta kazetaritzara pasatuko naiz Carmen de Burgosen eskutik. Carmen Almeriako herri batean jaio zen 1867an, eta haurtzaro alai bat bizi izan zuen. Baina gazte ezkondu zen, eta hau akats handia izan zen bere bizitzan, izan ere, aukeratu zuen gizonezkoa ez zen izan hasieran uste zuen modukoa, eta hainbat jipoi eta gezur jaso eta gero bere alaba besoetan hartu eta Madrileran alde egin zuen. Bere ingurukoek ez zioten hau inoiz parkatu.

Magisteritza ikasi zuen, gauez, egunean zehar alaba zaintzen zuen eta. Madrilen bizi zen giro kulturean sartzea



**Garazi Arrizabalaga Cabrerizo**  
Durangoko museoa

**Madrilen bizi zen giro kulturean sartzea lortu zuen eta eskolak ematen eta idazten hasi zen**

**Horrela, ideia feministak egunkari batean lehen aldiz idatzi zituen kazetaria bihurtu zen**

lortu zuen eta eskolak ematen eta idazten hasi zen. Egunkarietan ere idazten zuen. Kasu honetan, ezizena erabiltzen zuen: Colombine. Emakumeentzat zutabeak idazten hasi zen, baina testu hauen barnean bestelako mezuak helarazten zizkien emakumei (askatasuna, boto eskubidea eta dibortzioa). Horrela, ideia

feministak egunkari batean lehen aldiz idatzi zituen kazetaria bihurtu zen. Baina ez zen hau izan aitzindari izan zen aldi bakarra, izan ere lehenengo emakumea izan zen gerrako korrespontsal modura lan egiten. Zehazki, Rifan egon zen, 1909an. *Gerra gerrari* artikulua idatzi zuen eta gizonek gerra egitea kritikatu zuen bertan. Honetan ere aitzindaria izan zen.

98ko belaunaldiko idazleekin batera idatzi zuen. Guztira, ehun bat nobela idatzi zituen, bidaia liburuak, artikulak, biografiak eta itzulpenak. Gizonezko haiekin harremana izan zuen, baina ez da historia liburuetan agertzen gizonezkoen kasuan bezala. Isilarazia eta erreza izan zen, izan ere frankismo garaian biblioteca guztietatik bere liburuak erretzea eskatu zen eta bere idatzi guztiek amaiera bera izan zuten. Paper gainean feminismoaren hastapenak idatzi zituen lehen emakumearen hitzak eta ideiak suak desagerrarazi zituen.





**Olatz Areitio  
Aristorena**

**Futbolaria**

**DURANGO | 1994**

**Erronka berriko beste eskakizun bat Oiartzunera joan-etorriak egitea izango da. Ordubeteko bidea dago.**

Astean hiru-lau bider haraino joateak esfortzu bat eskatzen du, bai. Futbolak asko kentzen dizu, baina baita eman ere, eta jasoko dudana gehiago izatea espero dut. Esperientzia berri bat izango da.

**Zer helburu izango ditu Oiartzunek?**

Entrenatzailea aldatu egin da eta fitxaketa dezente dago. Jokalari gazte asko egongo da. Iaz taldea justu samar ibili zen eta aurten gorago ibiltzea da taldearen esperantza.

**Tirabira askoren ondoren, emakumeen futbola profesionalizatzeko iazko urte hasieran adosturiko hitzarmena zer iruditzen zaizu? Beheragoko mailtako taldeentzat ere onuragarria da?**

Baietz esango nuke. Lehenengo Maila profesionala den moduan, uste dut Bigarren Mailan ere esku hartuko dutela eta egoera apurka hobetzen joango dela. Gura baino astiroago, baina mugimenduak ikusten dira behintzat.

**COVIDagaz ere aurrerapausoak ikusten dira, baina kasu honetan ere gura baino astiroago. Kirolari ikuspegitik egoera normalizatu batera bueltatzeko gogotsu zaude?**

Bai. Egoera gatxa izan da. Taldean batzea ez zen batera erraza. Entrenatzeko aukera geneukan, baina horixe bakarrik: entrenatu eta etxera. Nahiko hotza zen. Gainera, partidu dezente atzeratu da positibo kasuengaitik. Gabon inguruan, sei aste partidurik jokatu barik eman genituen, oporren-gaitik eta positibo kasuengaitik. Itzulera denboraldi-aurre baten modukoan izan zen.

## “Arraroa izango da Eibar ez den beste klub batean jokatzea, baina ilusionatuta nago”

Hamaika denboraldian bere etxea izan den kluba utzi eta Olatz Areitio futbolari durangarrak abentura berri bati ekingo dio Oiartzunen

**FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO**

**Eibar utzi beharrak pena eman diola dio, baina erronka berriari aurre egiteko ilusioz dagoela adierazi du Areitio. 2021/2022 denboraldian Nazional B Mailan arituko da Oiartzun taldeagaz, eta astebete eskas falta da denboraldi-aurrea hasteko.**

**Arraroa egingo zaizu Eibar ez den beste klub batean jokatzea.**

Bai, hainbeste urteren ostean Eibarretik joatea nire etxetik irtetearen modukoa da, eta pena ematen dit. Aurretik izan ditut klubetik irteteko aukerak, baina Eibar nire etxea sentitzen nuen. Erabakia gehiago izan da klubarena nirea baino. Euren planean ez naizela sartzen esan zidaten.

**Urte askoan zeu izan zara Eibarren jokalaria berriei harrera egiten ziena, eta orain...**

Egoera hesiaren beste aldetik bizitzea egokituko zait! Niretzat oso sentazio arraroa izango da Eibar ez den nonbait jokatzea, baina ilusionatuta nago.

**Ilusionatuta eta... urduri?**

Aspaldian sentitzen ez nuen urdurasun hori sentitzen dut, bai. Sentazio bereziak dira. Eibarren dena ezagutzen nuen, dena kontrolatuta nuen. Orain, oster, klub berria, inguru berria... Ez

da erraza izango, baina motibaturago nago erronka berriari aurre egiteko.

**Eta oraindino sasoi betean, 26 urte gaz.**

Gorputzak aguantatzen duen bitartean eta lanak ahalbidetzen badit, futbolearen urte batzuetan jarraitu dezakedalakoan nago.

**Entrenatzaileaz gainera, Eibarren nigaraz ibilitako hiru taldekide joango dira Oiartzunera. Beraz, aurpegi guztiak ez dira berriak izango**

**Zelan sortu zaizu Oiartzunen jokatzeoko aukera?**

Hiru-lau talderen eskaintzak izan ditut. Oiartzunen Iñigo Cela entrenatzailea ezagutzen dut, bera ere Eibar B taldeetik doa eta. Nazional B Maila ere gustuko kategoria dut, maila horretan jokaturakoa naiz eta. Azkenean, arlo guztiak baloratuta, aukerarik onena Oiartzuneko zela pentsatu nuen.

**Beraz, Iñigo Cela aurpegi ezaguna duzu. Gainera, ondo ezagutzen zaituen pertsona da.**

Bai, ondo ezagutzen nau. Celaz

gainera, nigaraz ibilitako hiru taldekide joango dira Oiartzunera. Alde horretatik, gustura nago. Aurpegi denak ez dira berriak izango.

**Taldekide berriak dagoeneko ezagutzen dituzu?**

Oraingoz batzar bat egin dugu jokalaria guztiakin. Batzuk bistaz ezagutzen nituen, euren kontra

jokatu izan dudalako. Abuztuaren 2an hasiko dugu denboraldi-aurrea eta orduan hasiko gara elkar hobeto ezagutzen.

**Zer esan dizute taldeko arduradunek? Zer itxaroten dute zuek?**

Dakidana erakustea eta taldeari nire esperientziagaz laguntzea, horietxek izango dira nire helburuak.



Oiartzun taldeko aurtengo fitxaketak, euren artean dago Olatz Areitio.



# "Asko jokatu dut eta apur bat itxaroten nuen, baina ilusio itzela egin dit berdin-berdin"

Irene Ogizari Athleticen lehenengo taldeko fitxa egin diote; astelehenean talde nagusiagaz hasiko du denboraldi-aurrea

## FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Irene Ogiza Martinezek (Durango, 2000) denboraldi-aurreari ekingo dio datorren astelehenean, eta bere ibilbidean lehenengoz talde nagusiagaz arituko da. Izan ere, Athletic Clubek lehenengo taldeko fitxa egin dio. Joan zen denboraldian jokaturiko partidurik gehienetan titular aritu eta sei gol sartu eta gero, merezitako saria da. "Denboraldiko azken zatian asko jokatu dut eta apur bat itxaroten nuen, baina ilusio itzela egin dit berdin-berdin. Txikitatik dudan ametsa izan da", adierazi du futbolari durangarrak.

**Azken denboraldian, 18 partidutik 15etan titular jokatu du eta sei gol sartu ditu**



Irene Ogiza lehenengo taldeagaz sarturiko gol bat ospatzen.

Ogizari inork ere ez dio ezer erregalatu bere futbolari ibilbidean. Lesio batek baino gehiagok gorako bidea eten diote, baina euretatik indartsuago irten duela dio. "Inork ere ez dit ezer oparitu, baina nire ibilbideko ezertxo ere ez nuke aldatuko. Lesioek orain naizena izaten lagundu didate. Pertsona moduan hazten eta lorpenak gehiago balora-

tzen lagundu didate", adierazi du durangar gazteak. Bere ibilbidean birritan apurto du belauneko lotailu gurutzatua: lehenengoz, 16 urteagaz, Athleticera batu zen urtean, eta, bigarren, lehenengo taldeagaz debutatu eta gero. Osasun krisiaren ondorioz liga txapelketak gelditu zirenean, durangarra errehabilitazioan murgilduta zebilen.

Baina ezpal gogorreko futbolaria da eta iazko azaroan lehen-

**"Nire ibilbideko ezertxo ere ez nuke aldatuko. Lesioek orain naizena izaten lagundu didate"**

nengo taldera itzuli zen partiduan gol bi sartu zituen. Aurreko denboraldian 18 partidu jokatu ditu Primera Iberdrolan, 15 bider hasierako hamaikakoan. Partidu horietan sei gol sartu ditu. Aurretik, denboraldiko lehenengo zatian, erdilariak bederatzi partidu jokatu zituen filialean, eta beste hiru gol sartu zituen.

## Cañetek Euskadiko arku-tiro txapelketa irabazi du eta Luengo azpitxapeldun izan da



## ARKU-TIRAKETA • J.D.

Trapagarango futbol zelaiak Euskadiko arkularirik onenak batu zituen zapatuan. Emakumeetan bost tiratzailek parte hartu zuten eta Zaldibar Arku Taldeko Lidia Cañete durangarra izan zen onena, 604 puntu lortuta. Beste durangar bat azpitxapeldun geratu zen, Etxebarriko Arkulariak taldean dabilen Elisabeth Luengo, hain zuzen ere. Luengok 590 puntu-gaz amaitu zuen txapelketa.

Orain asteburu bi, Cañete eta Luengo Bizkaiko txapeldun eta txapeldunorde geratu ziren, hurrenez hurren.

Eguenean eta barikuan master mailako Espainiako txapelketan parte hartuko du Cañetek, Madrilan. 2019an irabazi egin zuen eta aurten helburu beragaz doa. Bestalde, asteburuan maila absolutuko txapelketan arituko dira Cañete eta Luengo.

## Jokaldia

### Tourraren gorabeherak

Hainbeste urtean Frantziako Tourra ikusten aritu garenok badakigu ikuskizun handiko lasterketa dela. Munduari txirrindularitza zer den erakusteko bide bat da. Txirrindularien gorabeherak jende askoren arreta erakartzen dute hiru astez eta kirol honetara zale berriak erakartzeko erakusleho nagusia da.

Txirrindularitzan handitasuna zaintzea eta zale ez direnei produktua saltzea denon erantzukizuna da; txirrindulari, antolatzaile eta abarrena, baina baita errepide ondoan batzen diren zaleena ere. Ohikoa den moduan, aurten ere makina bat zale batu da bide bazterretan ziklistak animatzen. Txirrindularitza bihotzean daramaten zaleek ez dute hutsik egin aurten ere. Baina ikusi ditugu egoismoa gai-



Eneritz Iturriaga Mazaga  
Txirrindularitza

**"Telebista bidez ikusitako etapetan maskara gutxi ikusi dut aurpegietan eta kontu serioa iruditzen zait"**

**"Osasun krisia ez da amaitu oriantik eta denok ipini behar dugu gure partetik horri aurre egiteko"**

lendu zaien eta euren ikuskizun propioa sortu dutenak ere, txirrindulariei oztopoak ezarritik.

Horrez gainera, telebista bidez ikusitako etapetan, maskara gutxi

ikusitako aurpegietan eta kontu serioa iruditzen zait. Osasun krisia ez da amaitu eta denon partetik ipini behar ditugu bitartekoak horri aurre egiteko. Den-denon erantzukizuna da, gutako bakoitzarena. Txirrindulariok test asko pasatu behar ditugu lasterketak lehiatu ahal izateko. Baina ez hori bakarrik, egoera honek beste modu batzuetan ere eragiten digu: bakarrik entrenatu behar izaten dugu eta bizi-modu bakarti bat jarraitu behar dugu, COVID-ik ez hartzeko.

Beraz, errepide ondoan zaudeten guztioi errespetuz eta erantzukizunez jokatzeko eskatu nahi dizuet, txirrindulariek euren lana ahalik eta ondoan egin dezaten eta zaleek ikuskizunaz lasaitasun osoz gozatu dezaten. Batak bestea barik ezin gara bizi eta elkarri lagundu behar diogu maite dugun kirol honen mesedetan.



# DURANGALDE

## Mañariko San Martin ermita

Untzillatxera bidean topatu daitezkeen txokoek ipuinetatik ateratakoak dirudite. Mañariko San Martin ermitaren inguruek, adibidez, zerbait berezia dute. Han, inguruko kobazuloek, erritual kristauek eta kondaira paganoek bat egiten dute. Diotenez, handik gertu jentilak ibiltzen ziren Untzillatxeko haitzetan boloetan jokatzeko.





# KO TXOKOAK!

## Ilusentia Mugarraldean

Eguna amaitzera doan une horretan, naturak beste kolore bat hartzen du. Beste temperatura bat, mundu magiko batetik etorri berri balego lez. Mugarrak ere badaki hori. Eguzki amandreak bere aurpegia ezkutatzeari ekiten dionean, apaldu egiten da haitzaren handitasuna. Lotsatuta lez ageri da.





# Udan ere Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



**Bidali alta**  
**688 635 041**  
**telefono zenbakira**

\* **Izan zaitez berriemaile ere.**  
**Bidali zure argazki eta bideoak**

**anboto**





Eskelak jartzeko: 946 816 558  
edo [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org)

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + [anboto.org](http://anboto.org)-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA



**GOZATU**  
**GOZOTEGI-OKINDEGIA**  
Ermodo, 11. DURANGO / Tel.: 946 201 663  
[gozaturango@gmail.com](mailto:gozaturango@gmail.com)  
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.



Zorionak **Aitzol Abin** zaldibarkoari, abuztuaren 2an hiru urte egiten ditu. Muxu handi bat bere anai Oier, guraso, aitate Valentín eta amama Mari Carmenen partez Errioxatik.



Zorionak, **Alluitz**, etxekeun partez, batez be Ametzen partez. Uztailaren 22an 8 urte, gure urterik ederrenak. Zu bai zu tipue! Gozue eta salau. Itzelen gure zaitugu!



Matixenako baserritar amateurre badoie apurke-apurke profesionalizetan! Hortaz, hurrengo patata tortillie Etxenausiko arrautzegaz, eh! Zorionak **Gilito** eta 26 belarri tirekada.



Zorionak "ex compañero de fatigas"! Mendiko zapatilla batzuegaitik aldatu gaituzu... halan da be, zure urtegunien egun on bat pasatze opa deusugu! Abuztuaren 11n trago bat zure kontu!



"Lore gorri, lore Zuri, lore zure desertuko lore, putzuko nenufere bihar lehor, atzo sutan, gaur bare..." Zorionak, **Zuri!** Gure amapola faborita! Mosu haundi bat! Zure kuadrillako tiabuenak.



Zorionak kai eta familian partez!!

## Botikak

**BARIKUA, 23** · 09:00-09:00

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**IRIGOIEN** Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

**DOMEKA, 25** · 09:00-09:00

**MELERO, ROSA MARI**  
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

**IRIGOIEN** Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

**MELERO, ROSA MARI**  
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**ZAPATUA, 24** · 09:00-09:00

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**GAZTELUMENDI** J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

**ASTELEHENA 26** · 09:00-09:00

**MELERO, ROSA MARI**  
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

**SARRIA** Sasikoa 17, **DURANGO**

09:00-13:30

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**DE DIEGO** Intxaurren 22. - **DURANGO**

**MARTITZENA, 27** · 09:00-09:00

**BAZAN DIAZ** Uribarri 5 - **DURANGO**

**UNAMUNZAGA** Murratortze 2C - **DURANGO**

**SARRIA** Sasikoa 17, **DURANGO**

09:00-22:00

**CAMPILLO** Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**NAVARRO** Artekaleara 6 - **DURANGO**

**EGUAZTENA, 28** 09:00-09:00

**LARRAÑAGA-BALENTZIAGA**  
Berrio-Otxoa 6 - **ELORRIO**

**CAMPILLO** Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

**GOIRIA, MARI CARMEN**  
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

**EGUENA, 29** · 09:00-09:00

**IRIGOIEN** Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

**GAZTELUMENDI** J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

09:00-22:00

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

## Eguraldia

ZAPATUA ↓ 24° / 14° ☁

ASTELEHENA ↓ 22° / 16° ☁

EGUAZTENA ↓ 25° / 14° ☁

DOMEKA ↓ 22° / 15° ☁

MARTITZENA ↓ 23° / 14° ☁

EGUENA ↓ 24° / 15° ☁



## “Olinpiar Jokoetara argazkilari lez joatea dut amets; erronka bat litzateke”

Zornotzako Larreako kiroldegian 'Zornotzako emakume kirolariak' erakusketa ipini dute Maria Mentxakaren argazkiekin. Durangoko Landako kiroldegiko argazkiak ere bereak dira



**Maria Mentxaka Goikoetxea**

Kiroltako argazkiak egiten ditu

MUNGIA | 1976

**DURANGO • AITZIBER BASAURI**

**Maria Mentxakak plater-tiroko munduko txapelketa bost urtean irabazi du taldeka Espainiako selekzioagaz, eta hiru bider Europakoa. Bakarka Europako eta munduko azpitxapeliduna izatera ere heldu da. Azken urteetan, kirola eta argazkilaritza uztartu ditu. Emakume kirolarien erreferenteak sortzea oso garrantzitsua dela nabarmendu du Durangon bizi den mungiarak.**

**Kiroltako argazkilari zara pasioz. Zelan sortu zitzaizun grina hori?**

Kirolak betidanik erakarri nau. Eta argazkigintza ere oso gustuko izan dut. Bada, kiroltako argazkiak ateratzen hasi nintzen, proba egiteko.

Oso ondo sentitzen naiz argazkiak ateratzen, kiroltakoak batez ere. **2012ko Londresko Olinpiar Jokoak inflexio-puntu bat izan ziren.**

Orduan konturatu nintzen zenbateraino nuen gustuko kiroltako argazkiak ateratzea. Olinpiar Jokoak zuzenean bizitzeko joan ginen Londresera; kirolari izan garenontzat gorenena da eta hura guztia argazkietan harrapatzeko grinagaz nengoen. Kirola nire bizitza da, gehien gustatzen zaidana, gehien motibatzen nauena; eta izugarri gustatzen zait argazkigintza. Uztartze horrek derrigorrez etorri behar zuen.

**Zer harrapatu gura duzu irudietan?**

Kirolak kirolariengan eta ikuslearengan sortzen duen sentimendua.

**“Kirola nire bizitza da, gehien gustatzen zaidana, gehien motibatzen nauena; eta izugarri gustatzen zait argazkigintza”**

Kirolak beti zerbait eman digu gustuko dugun guztioi: emaitzak, jakina. Baina balioak eta sentimenduak ere bai. Kirolaria izan naiz eta badakit toki batzuetara heltzea zein gatxa den. Horixe islatu gura dut.

**Futbolearen eta bolebolearen jokatu duzu. Taekwondo egin duzu eta plater-**

**tiroan munduko txapeliduna izan zara. Kirolaria zara bokazioz.**

Bai. Beti egin dut kirola. Eta sentitu dut orain ere banuela zerbait emateko: emakume kirolariak erakutsi gura nituen.

**Emakume kirolari lez zure lana ez dela merezitako moduan erakutsi sentitu duzu?**

Bai. Egia da plater-tiroa ez dela futbola, baina uste dut gizona izan banitz gehiago erakutsiko zela.

**Bueltatuko zara plater-tiroa?**

Plater-tiroan dabilzan lagunak ditut, irakasteko eskatu didatenak, eta horretan nabil. Ez dut teknika galdu, apur bat hobetu egin behar nuke. Baina ez dut grina hori berriro sortzerik gura. Oso lehiakorra naiz, gainera.

**“Blogean, kirolarien atzean dauden istorioak ere kontatu gura ditut, horiek ezagututa balio gehiago emango genioke kirolarien lanari”**

**Tabernari ere lan egiten duzu Abadiñon. Kameragaz harrapatzeko moduko momentuak biziko dituzu barraren atzean...**

Bai! Tabernari izanda, makina bat liburu idatzi daiteke. Jendeagaz berba eginda asko ikasten da.

**Bloga sortu duzu. Argazkilaritza bizi-tzeko aukerarik ikusten duzu?**

Gustatzen zaidalako ateratzen ditut argazkiak, baina *freelance* ere banabil. Gura nuke hori lanbide bakarria izatea. Baina oso gatxa da. Olinpiar Jokoetara argazkilari lez joatea dut amets. Erronka bat litzateke, emakume gutxi daudelako. Gehienak gizonak dira oraindino. Blogean, kirolarien atzean dauden istorioak ere kontatu gura ditut. Horiek ezagututa, balio gehiago emango genioke kirolarien lanari. Kirola ez da entrenamendura mugatzen, eta atzean dagoena ezagutaraztea dut erronka.

**Baduzu irudi edo argazki berezik?**

Askok. Esaterako, asko hunkitu nintzen nigaz hasitako lagun bat Granadan jokatu zen plater-tiroko munduko txapelketan azpitxapelidun geratu zenean. Olinpiar Jokoetarako txartela lortu zuen. Kirolak asko emozionatzen nau.

**Lauhortza**

Bixente Aizpurua Eguren

Irakaslea/ Jubilatu



**Zelako oroitzapenak!**

*Errota zahar maittea* abestiak sortu zidan nostalgiak nire haurtzarora eta gaztarora eramane nau. Nire oroimena oroitzapenez beterik dago eta irudi horiek ez dute zer ikusirik gaurko argazkiarekin.

Baserrri inguruan bizi ginenok eskolara joan ondoren eta etxe-lanak bukatu eta gero, gure gaitasunaren arabera, baserriko lanetan laguntzen genuen. Aitak behiak uztartzen zituenen frantsesarea, gilda edo narra pasa behar zenean behien aurrean itzaurrean egiten genuen behien norabidea eta erritmoa zaintzen. Lurrak landuta zeudenean astoa sokatik heldu eta artoa eraiteko makina atzean temati zetorrelarik lur sail desberdinak eraiten genituen.

Negurako despentsa betetzeko, udan belarra sega edo segadora-rekin moztu, makilekin zabaldu eta buelta eman sikatzeko eta prest zegoenean eskuarearekin batu eta sardarekin gurdia bete eta gero sabaian pilatzen zen eta hor ibiltzen ginen umeok saltoka belarra zapaltzen tokia ondo aprobetxatzeko.

Baina dena ez zen lana, gure aisialdia ere izaten genuen eta hor elkartzen ginen txiki eta nagusi, neska eta mutil futbolearen, balon prisonero, harrapaketa, inkean, txirikilan, buztinez egindako kaniketan eta abarretan jolasten.

Gure jolastokia kalea zen. Oso seguru sentitzen ginen kotxerik ez zebilelako eta nagusiek txikiagoak zaintzen zituztenez gure gurasoak ere nahiko lasai egoten ziren.

Ziur nago hau irakurtzen duten askori ezezaguna egingo zaiela hemen azaltzen den margolana, baina seguru asko nire garaikoei irribarretxua sortuko zaiela adinean atzera egiterakoan. Garaiak garai eta bizimoduak bizimodu zorientsuak izan gaitzela tokatu zitzaizun sasoiarekin gozatuz.

Durangaldean gremioekin,  
zerikusia duen negoziarik baduzu,

**JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON**

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian